# AZKOITIA HERRILAB +700

# HERRI PLANA 2022

PROZESUAREN MEMORIA

# AURKIBIDEA


***1. SARRERA......3***

***2. PROZESUAREN HELBURUAK......4***

***3. PROZESUAREN DESKRIBAPENA: METODOLOGIA ETA PARTE-HARTZAILEAK 5***

*1. FASEA: PLAN ZIRRIBORROA SORTU......6*

*2. FASEA: HERRI PLANA KONTRASTATU ETA OSATU......6*

*3. FASEA: HERRI PLANAREN BALIDAZIOA......7*

*4. FASEA: HERRI PLANAREN ITZULKETA ETA AURKEZPENA......9*

***4. EMAITZAK......10***

***5. PROZESUAREN EBALUAZIOA......12***

***6. ONDORIOAK......13***

*HERRI PLANAREN ONDORIOAK......13*

*PROZESUAREN ETA LANKIDETZAREN ONDORIOAK......14*

***7. ERANSKINAK......15***

# 1. SARRERA

Azkoitiko Udalak bultzatutako *Azkoitia Herrilab +700: Herri Plana* osatzeko prozesua jasotzen du txosten honek. 2024. urtean herriaren 700. urteurrena izango da eta inflexio puntu garrantzitsua izatea proposatzen da Azkoitian. Horretarako, Azkoitiko Udalak herri mailako hausnarketa prozesu bat bideratu du *Azkoitia Herrilab +700* egitasmoaren bidez.

Hainbat dira Azkoitian azken urteotan garatutako parte-hartze prozesu, plan eta txostenak; hala nola, 2019-2023 Legealdi Plana, Azkoitia Lagunkoia (2019), 2020-2024 Adikzioen Prebentzio Komunitarioko Udal Plana, Mapa Morea (2020), kultur elkarteei helarazitako galdetegia (2021) edota Euskara mahaia edo Hezkidetza foroa bezalako foro iraunkorretatik jasotako informazioa. Horrez gain, gaur egun martxan daude Irisgarritasun eta Berdintasun Planak eta 2021-2024ko Iraurgi Berritzenen hausnarketa estrategikoa.

2021. urtean zehar ere *Azkoitia Herrilab +700: Herri Diagnosia* egitasmoa garatu zen. Herri mailako diagnostiko partekatua osatu zen, egungo egoeraren begirada konpartitua ahalbidetu zuena. Hala, Azkoitiko herriak dituen erronkak identifikatu eta lehenetsi ziren diagnosiaren bidez.

Honi jarraipena emanez, *Azkoitia Herrilab +700: Herri Plana* osatzea datozen urteetan gauzatuko diren herri proiektu edo ahaleginak zein diren zehazteko ariketa izan da. Prozesu hau Aztiker Soziologia Ikergunearen aholkularitzarekin garatu da, 2022ko apirilean hasi eta 2022ko abenduan amaitu delarik. Txosten honetan prozesuaren lan faseak, urratsak, eduki eta xehetasunak bildu dira, egindakoaren memoria oso gisan gorde dadin.

Herri Planaren sorkuntza prozesu honetan, Azkoitia osatzen duten herritarrak, eragile sozialak zein udal barruko egiturek parte hartu dute. Izan ere, prozesuak herri mailako ikuspegi bateratua eratu eta jasotzea izan du helburu, erronka komunei elkarrekin ekiteko. Horretarako, Herri Plana osatzeko, lehenik eta behin zirriborro bat sortu zen, eta berau kontrastatu eta osatu zen udal barruko egiturekin zein herritar talde eta norbanakoek egindako ekarpenen bitartez. Ondoren ekintza proposamenak jaso ziren herritarren eta eragileengandik. Ekintza hauetan oinarrituta, ausaz hautatutako herritar talde batek osatutako Herri Kontseiluak zenbait ekintza lehenetsi zituen. Amaitzeko, azken zirriborroa udal ordezkari eta teknikariekin zein herritarrekin kontrastatu zen. Hala, *Azkoitia Herrilab +700: Herri Plana* dokumentua osatu da.

Egindakoaren nondik norakoak jasotzen ditu txosten honek, honako egiturari jarraituta: lehenik eta behin, prozesuaren helburuak, erabilitako metodologia eta parte-hartzaileen inguruko datuak jaso dira. Jarraian, jarraitutako prozedura eta sortutako edukiak azaldu dira; baita prozesuko une ezberdinetan egindako ebaluaketak ere. Amaitzeko, zenbait ondorio eta hausnarketa aipatu dira. Txostenaren amaieran sortu diren dokumentu garrantzitsuenak jaso dira eranskin moduan.

Sarrera atal hau amaitzeko aipamen eta goraipamen bat prozesu honetan zehar modu batean edo bestean partaide izan diren pertsona guztiei, interesagatik, kezkagatik, haserreagatik, suminduragatik, adostasunagatik, ezadostasunagatik, e.a. gaira gerturatu diren guzti guztiei. Bakoitzak prozesuan zehar gehitutako aletxoari esker osatu baita uzta, beraz, zorionak izan duzuen ekimen eta jarrerarengatik!

# 2. PROZESUAREN HELBURUAK

Prozesu honek hainbat helburu eduki ditu. Sarreran aipatu bezala, **helburu nagusia** honakoa izan da:

> Datozen urteetan Azkoitian gauzatuko diren herri proiektu edo ahaleginak zein izango diren zehaztea, herri mailako ikuspegi bateratua eratu eta jasoz, erronka komunei elkarrekin ekiteko.

Aldi berean, prozesu honek bi **zeharkako helburu** izan ditu:

- Komunitate ikuspegia lantzea, talde lanerako espazioak sortuz eta alde bakoitzaren interesen ikuspegi zehatzetik, auziaren inguruko ikuspegi ezberdinak mahai gaineratzeko, herri ikuspegi batetik garatutako proposamena sortu ahal izateko.

- Kultura politikoaren eraldaketa sustatzea, politika publikoen garapenean kargu politikoen, udal teknikarien eta herritarren parte-hartzea uztartzeko kanalak landuz.

# 3. PROZESUAREN DESKRIBAPENA: METODOLOGIA ETA PARTE-HARTZAILEAK



# 1. FASEA: PLAN ZIRRIBORROA SORTU

Azkoitia Herrilab +700: Herri Plana osatzeko prozesuaren lehenengo fasea 2022ko apirila eta maiatza bitartean gauzatu da. Lehenik eta behin, Azkoitia Herrilab +700: Herri Diagnositik eta udaleko beste plan eta dokumentaziotik abiatuta Herri Planaren lehenengo zirriborroa idatzi da. Ondoren, zirriborro hau udaleko barne egiturekin kontrastatu da bi lan saioren bitartez: lehena udal teknikariekin eta bigarrena udal ordezkariekin. Horretarako, Udaleko ordezkari eta teknikari guztiei bertaratzeko gonbidapena bidali zaie e-postaz. Haiek egindako ekarpenak aintzat hartuta, Herri Planaren lehenengo zirriborroa osatu da, bigarren bertsio bat lortuz.

Udalarekin burututako kontraste saioetan izandako partaidetza honakoa izan da:

| **UDAL TEKNIKARIEKIN 1. KONTRASTE SAIOA** | **UDAL ORDEZKARIEKIN 1. KONTRASTE SAIOA** |
|---|---|
| Parte-hartzaile kopurua: 11<br>Generoaren arabera:<br>- Emakumeak: 7<br>- Gizonak: 4 | Parte-hartzaile kopurua: 9<br>Generoaren arabera:<br>- Emakumeak: 4<br>- Gizonak: 5 |

# 2. FASEA: HERRI PLANA KONTRASTATU ETA OSATU

Bigarren faseari hasiera emateko, prozesuaren Aurkezpen Batzarra burutu da 2022ko ekainaren 7an. Horretarako deialdi irekia egin da herriko eragile zein norbanako interesatuak bertaratzera gonbidatuz. Diagnosia sortzeko prozesuan egindako harremanei zuzenean zabaldu zaie gonbidapena e-postaz zein WhatsApp mezu bidez eta Udalaren web gunean ere argitaratu da.

Horrez gain, 2022ko ekainean zehar, Herri Planaren bigarren zirriborroaren araberako sei lan eremu abiapuntutzat hartuta, elkarrizketa sakonak burutu dira gai bakoitzaren inguruko herriko erreferente ezberdinekin. Hala, sei elkarrizketa sakon egin dira -horietako batzuk binaka- Azkoitiko herritar zehatzek duten ikuspegian sakontzeko eta honako gaiak landu dira: euskara, kultura, jatorri eta kultur aniztasuna, parekidetasuna, partaidetza, ingurumena, lurralde antolaketa eta azpiegiturak, trantsizio ekonomikoa, zaintza, enplegua, etxebizitza eta kirola (1. eranskina: Elkarrizketa txostena: diskurtsoak, iritziak eta proposamenak).

Azkenik, Azkoitiko herritar, talde eta antolakundeek Herri Planerako ekintzak proposatzeko galdetegia zabaldu da 2022ko ekaina eta uztaila bitartean. Galdetegi hau e-postaz eta WhatsApp bidez zabaldu da eta herriko Udaletxean, Elkargunean eta Liburutegian jarri dira paperean betetzeko eta entregatzeko eskuragarri. Guztira 115 aldiz hasi dira galdetegia betetzen eta horietatik 68 galdetegi jaso dira bukatuta: 32 bete dira paperean, 35 online eta 1 telefonoz. Gai-eremuari lotuta, Ingurumena, lurralde antolaketa eta azpiegiturari lotutako proposamenak izan dira gehiengoa (23), zaintzaren ingurukoek jarraituta (11) (2. eranskina: Galdetegien txostena: ekintza proposamenak).

Ekarpen hauek guztiak jaso ostean, Herri Planaren bigarren zirriborroa osatu eta moldatu da, hirugarren zirriborroa sortuz.

Parte-hartze datuei dagokionez, ondorengo taulan jaso dira Aurkezpen Batzarreko, elkarrizketetako eta galdetegietako datuak:

| AURKEZPEN BATZARRA | |
|---|---|
| Parte-hartzaile kopurua: 31<br>Generoaren arabera<br>- Emakumeak: 18<br>- Gizonak: 13 | |
| **ELKARRIZKETA SAKONAK** | **GALDETEGIA** |
| Parte-hartzaile kopurua: 11<br>Generoaren arabera:<br>- Emakumeak: 6<br>- Gizonak: 5<br>Adinaren arabera:<br>- <30: 2<br>- 31-60: 8<br>- >61: 1<br>Jaioterriaren arabera:<br>- Euskal Herrian jaioa: 8<br>- Beste herrialde batean jaioa: 3 | Bukatutako galdetegi kopurua: 68<br>Generoaren arabera:<br>- Emakumeak: 27<br>- Gizonak: 35<br>- Erantzunik ez: 6<br>Adinaren arabera:<br>- <30: 6<br>- 31-60: 27<br>- >61: 20<br>- Erantzunik ez: 15<br>Hizkuntzaren arabera:<br>- Euskaraz: 56<br>- Gaztelaniaz: 4<br>- Biak: 8 |

## 3. FASEA: HERRI PLANAREN BALIDAZIOA

Hirugarren fasean Herri Planaren balidazioa burutu da hirugarren zirriborroa oinarritzat hartuz. Balidazio hau herritarrek zein udal barneko egiturek egin dute. Alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz Sailak lagunduta, "Gipuzkoako Instituziotan Herri Kontseiluak/Behatokiak sortzeko eta garatzeko web gida" Gobernantzaren Eraldaketarako proiektuaren parte izan da Azkoitia. Hala, Herri Plana garatzeko bidean, Herri Kontseilua eratu da; hau da, ausaz hautatutako herritarren lan taldea. Herri Kontseilu honek, Herri Planerako herritarrek egindako ekintza proposamenak aztertu eta lehenetsi egin ditu honako galderari erantzunez:

*Azkoitia Herrilab +700 egitasmoaren baitan Herri Plana garatzen ari da modu konpartituan Udalaren eta herritarren artean. Herri Planaren zirriborrotik abiatuta, nola hobe daitezke proposamenak? Zerbait falta da? Zeintzuk dira lehentasunak?*

2022ko uztailean zozketa egin da eta tokatutako 231 herritarrei gutuna bidali zaie Herri Kontseiluan parte hartzera gonbidatuz abuztu amaieran. Irailean herritarrei deiak egin zaizkie eta Herri Kontseilua osatu da. Ondoren, aurkezpen saio batean eta bi lan saiotan zehar elkartu dira Herri Kontseilua osatu duten herritarrak 2022ko iraila eta urrian zehar (3. eranskina: Azkoitia Herrilab +700: Herri Kontseilua). Hauek izan dira taldearen parte-hartze ezaugarriak:

| **HERRI KONTSEILUA** | | |
|---|---|---|
| **AURKEZPEN SAIOA** | **LEHENENGO SAIOA** | **BIGARREN SAIOA** |
| Parte-hartzaile kop.: 12<br>Generoaren arabera:<br>- Emakumeak: 6<br>- Gizonak: 6<br>Adinaren arabera:<br>- 16-34: 2<br>- 35-49: 2<br>- 50-64: 6<br>- 65+: 2<br>Bizilekuaren arabera:<br>- 1. distritua: 0<br>- 2. distritua: 4<br>- 3. distritua: 8 | Parte-hartzaile kop.: 10<br>Generoaren arabera:<br>- Emakumeak: 5<br>- Gizonak: 5<br>Adinaren arabera:<br>- 16-34: 1<br>- 35-49: 2<br>- 50-64: 6<br>- 65+: 1<br>Bizilekuaren arabera:<br>- 1. distritua: 0<br>- 2. distritua: 4<br>- 3. distritua: 6 | Parte-hartzaile kop.: 7<br>Generoaren arabera:<br>- Emakumeak: 3<br>- Gizonak: 4<br>Adinaren arabera:<br>- 16-34: 1<br>- 35-49: 1<br>- 50-64: 5<br>- 65+: 0<br>Bizilekuaren arabera:<br>- 1. distritua: 0<br>- 2. distritua: 4<br>- 3. distritua: 3 |

Bestalde, udal barneko egiturekin bigarren kontrastea egin da bi lan saioren bitartez: lehena udal teknikariekin eta bigarrena udal ordezkariekin. Horretarako, Udaleko ordezkari eta teknikari guztiei bertaratzeko gonbidapena bidali zaie e-postaz. Haiek egindako ekarpenak aintzat hartuta, Herri Planaren laugarren eta azken zirriborroa osatu da.

Bigarren kontraste honetan honakoek hartu dute parte:

| **UDAL TEKNIKARIEKIN 2. KONTRASTE SAIOA** | **UDAL ORDEZKARIEKIN 2. KONTRASTE SAIOA** |
|---|---|
| Parte-hartzaile kopurua: 12<br>Generoaren arabera:<br>- Emakumeak: 7<br>- Gizonak: 5 | Parte-hartzaile kopurua: 8<br>Generoaren arabera:<br>- Emakumeak: 5<br>- Gizonak: 3 |

## 4. FASEA: HERRI PLANAREN ITZULKETA ETA AURKEZPENA

Azkoitia Herrilab +700: Herri Plana osatzeko prozesuari amaiera emateko, Batzar Irekia deitu da 2022ko azaroan. Prozesuan zehar parte hartu duten herritarrei, eragileei, zein udal ordezkari eta teknikari guztiei zabaldu zaie bertaratzeko gonbidapena. Hala, zenbait herritar, eragile ezberdinetako kideak eta udal ordezkari zein teknikariak elkartu dira batzar honetan. Bertan Herri Planeko azken zirriborroa aurkeztu da eta ondoren, honen balorazioa egiteko tartea egon da. Amaitzeko, Herri Plana bera baloratzeaz gain, hau osatzeko prozesuaren balorazio orokorra ere egin da.

Batzar Irekiko partaidetzari dagokionez, honako datuak bildu dira:

| **BATZAR IREKIA** |
|---|
| Parte-hartzaile kopurua: 17<br>Generoaren arabera:<br>- Emakumeak: 7<br>- Gizonak: 10<br>Rol-aren arabera:<br>- Herritarrak: 13<br>- Udal ordezkariak: 3<br>- Udal teknikariak: 1 |

# 4. EMAITZAK

Prozesu honetatik Azkoitia Herrilab +700: Herri Plana dokumentua sortu da (4. eranskina: Azkoitia Herrilab +700: Herri Plana). Bertan zehazten dira Herri Planaren egitura osatzen duten hiru lan-ildoak, hauei lotutako helburuak eta ekintzak; baita hauek burutzeko kronograma proposamen bat eta administrazio mailan eskatuko dituzten lankidetzak ere. Proposatutako ekintza guztietatik ondorengo taulan jaso dira Herri Plan honetarako lehenetsi direnak:

| LAN ILDOAK | HERRI IDENTITATEA | | | | HERRI IRAUNKOR ETA ARDURATSUA | | | ONGIZATEA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **HELBURUAK** / **EKINTZAK** | **1. HERRI EGITURA** | **2. AZPIEGITURAK** | **4. HEZKUNTZA** | **5. PAREKIDETASUNA** | **6. HONDAKINEN KUDEAKETA** | **7. ENERGIA** | **8. TRANTSIZIO EKONOMIKOA** | **9. ZAINTZA** | **10. ENPLEGUA** | **11. ETXEBIZITZA** | **12. KIROLA** |
| 1. Herri Batzarraren eta Auzo Kontseiluen bitartez udalaren, eragileen eta herritarren arteko antolakuntza egituratzea. | | | | | | | | | | | |
| 2. Azkoitiko kultur dinamika kudeatu eta hauspotuko duen kultur elkarte edo kooperatiba sortzea, zeinak egitasmoak burutzeko espazio egokia kudeatuko duen | | | | | | | | | | | |
| 3. Euskara mahaia indartu eta euskararen planifikazioa diseinatzea, epe luzera begira euskararen etxea sortzeko aukera aintzat hartuz | | | | | | | | | | | |
| 4. Auzo kontseiluen bitartez, Udalaren eta herritarren arteko komunikazio bideak zabaltzea, auzo kontseiluen bitartezko topaketa periodikoekin eta herriaren berri izateko podcast bidezko herriko irratia martxan jarriz | | | | | | | | | | | |
| 5. Ingurumen foroa martxan jartzea | | | | | | | | | | | |
| 6. Herriaren eskura jartzeko Santa Klara Komentua eskuratzea | | | | | | | | | | | |
| 7. Heriotza erritualentzako erlijio anitzei begirako espazioak erraztea | | | | | | | | | | | |
| 8. Azkoitia Herri Hezitzaile sarera batzea | | | | | | | | | | | |
| 9. Egungo indarkeria kasuen analisia abiapuntutzat hartuz, indarkeria mota ezberdinei aurre egiteko neurriak hartzea, tratu onak helburu | | | | | | | | | | | |
| 10. Gehiegizko bilgarri eta zaborrarekin amaitzeko egitasmoak martxan jartzea | | | | | | | | | | | |
| 11. Energia ekoizpen eta kontsumo ohiturak eraldatzeko egitasmoak diseinatu eta martxan jartzea | | | | | | | | | | | |
| 12. Bertako merkataritza, enpresa txikiak eta herriko lokalak hauspotzeko lanketa egitea | | | | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 13. Zaintza ereduaren inguruko hausnarketa integrala burutzea | | | | | | | | | | | |
| 14. Enplegu aukerak errazteko jarduera ekonomikorako hazitegiak sortzea, tokiko enpresekin elkarlanean mintegiak antolatu, ideia laborategiak sustatu eta saretzeko topaguneak erraztuz | | | | | | | | | | | |
| 15. Etxe hutsen mapeoa egitea, hauek alokairuan jarri edo bestelako irteera bat emateko | | | | | | | | | | | |
| 16. Kirol jarduerak sustatzea, neska gazteen parte hartzea bultzatu eta kirol eskaintza anitzagoa eskainiz | | | | | | | | | | | |

Lehenetsi ez direnak ere jaso dira, bi kategoriatan: batetik, Herri Kontseiluak adostasun maila baxuarekin lehenetsitako 12 ekintza jaso dira Herri Planean. Bestetik, proposatu diren beste ekintza guztiak jasotzen ditu Herri Planaren eranskinak (5. eranskina: Azkoitia Herrilab +700: Herri Planaren eranskina).

# 5. PROZESUAREN EBALUAZIOA

Prozesuan zehar bi une egon dira ebaluaketarako. Alde batetik, Herri Kontseiluan zehar, ebaluazio fitxa bat betetzeko eskatu zaie partaideei saio bakoitzaren amaieran bi helbururekin: saio bakoitzeko balorazioa jasotzea eta prozesua bere osotasunean baloratzea. Horretarako galdera ezberdinak erantzuteko eskatu zaie formatu ezberdinetan (aukera anitzeko erantzuna, erantzun irekia, zenbakizko balorazioa, etab.).

Orokorrean, Herri Kontseiluko saioetako metodologia, dinamizazioa eta giroa modu positiboan baloratu dira. Metodologia honek hausnarketetarako, adostasuna bilatzeko, informatzeko, pertsona eta iritzi ezberdinak entzuteko eta elkarlanean herrian eragiteko aukera ematen duela adierazi dute. Herri Kontseiluaren iraupena eta partaide kopurua izan dira zalantzan jarri diren puntu nagusiak. Izan ere, hausnarketa sakonagoak egin ahal izateko denbora falta eta pertsona kopuru eta profil aniztasun (bereziki adinari dagokionez) handiagoaren beharra adierazi dira hutsune moduan.

Azkenik, hasieratik presente egon diren sentipena izan da udalak Herri Kontseiluaren erabakiekin duen konpromiso mailarekiko mesfidantza edo zalantza. Hau prozesuan zehar lausotu arren, azken saioan ere zenbait partaidek adierazi dute lanketa hau ezerezean geratzearekiko beldurra. Hala, Herri Kontseiluan zehar egindako lanketa eta lehenestea aintzat hartzeko beharra azpimarratu dute.

Bestalde, prozesu amaierako Batzar Irekian egindako ibilbidearen balorazioa egiteko tartea egon da. Gailendu den iritzia izan da prozesua interesgarria izan dela eta lan asko egin dela. Aldi berean, Herri Plana osatzen duten ekintza hauek zertan gelditzuko diren kezkatzen ditu herritarrak. Elkarlanerako beharra ere azpimarratu da; elkarri entzuteko eta adostasunak lortzeko jarrerarekin parte-hartzeko beharra, norbere ikuspegi eta interesetatik haratago joanez.

# 6. ONDORIOAK

## HERRI PLANAREN ONDORIOAK

Hilabete hauetan zehar burututako prozesuaren ostean zenbait ideia ondorioztatu daitezke. Hasteko, badira agente ezberdinen artean adostasun maila handia duten ekintza proposamenak; hala nola, herri egitura bat sortzeari, energiari, zaintzari eta etxebizitzari lotutakoak.

Herri identitatearen lan ildotik hasita, **udalaren, herriko eragileen eta herritarren arteko antolakuntza egituratuko duen herri egitura bat sortzeak** onarpen orokorra du. Herritarren beharrei eta eskakizunei hobeto, azkarrago eta era planifikatuago batean erantzuteko tresna egokia izan daiteke; udalak eta herritarrek harreman zuzena izateko aukera zabalduz, elkarlanean hobekuntzak egiteko. Horrez gain, bereziki baliagarria izan daiteke herrigunean ez dauden auzoei ahotsa eman eta dituzten beharrei erantzuteko. Egitura honen nolakotasuna da zehaztu beharrekoa; hau da, izango dituen helburuak, ahalmenak, funtzioak, baliabideak, partaideak eta hauek izendatzeko era, etab. Kezka sortzen du gaur egungo kultura eta bizitza estiloa kontutan hartuta, erreala ote den eta halako proiektu batek eskatzen duen konpromisoa egongo den.

Herri iraunkor eta arduratsuari erreparatuz, **energia ekoizpen eta kontsumo ohiturak eraldatzeko egitasmoak diseinatu eta martxan jartzea** garrantzitsua eta lehentasunezkoa da. Alde batetik, energiaren auziari tokiko irtenbide bat emateko, egun agerikoa den krisi energetikoari egokiago erantzuteko, energia subiranotasuna indartzen delarik. Honi lotuta, kontsumo ohiturak aldatzeko eta kostuak murrizteko beharra azpimarratu da. Honi lotuta, bi alderdik kezka sortzen dute: alde batetik, kontsumo ohiturak aldatzeko herritarren erantzuna zein izango den. Bestetik, gaiaren kudeaketan ahots eta ikuspegi ezberdinak presente egotea eta beste baliabide batzuk urratu gabe egitea bermatuko ote den.

Ongizatearen lan ildoko bi ekintzen inguruko adostasuna nabarmendu da. Batetik, **zaintza ereduaren inguruko hausnarketa integrala burutzea**. Zentzu honetan, zaintza ulertzeko moduak eta zaintza ereduak aldatzen ari direla aintzat hartuta, egun dugun eta etorkizunean izango dugun erronkari erantzuteko errealitatera egokituko den eredu propio bat osotasunean definitzeko aukera ematen du ekintza honek, zerbitzu eta baliabide berriei bide emanez. Zaintzaren inguruko hausnarketa egitean hirugarren adinaren zaintzara mugatzeak kezka sortu du. Horrez gain, hausnarketetatik haratago hartzen diren erabakiak egikaritzeko egon daitezkeen zailtasun eta mugek ere zalantza eragin dute.

Bestetik, onarpen zabala du **etxe hutsen mapeoa egiteak, hauek alokairuan jarri edo beste irtenbide bat emateko.** Orokorrean, etxebizitzaren gaiak pisu handia duela somatzen da: alokairuan jartzeko beharra handia dela azpimarratu da, bereziki gazteei, etorkinei eta etxe bat erosi ezin duten kolektiboei dagokionez. Eusko Jaurlaritzako Alokabide eta Bizigune programen bidez pertsonen errentaren arabera alokairu prezioa moldatzeko aukera aintzat hartzekoa da gai honi irtenbidea topatzerakoan. Ekintza honen irismena da zalantza sortzen duena; hau da, mapeo honek ondoren neurriak hartzea ekartzen ez badu, arazoa ez dela konponduko. Horregatik, etxebizitzak alokairuan jartzeko pizgarriak pentsatu behar dira.

## PROZESUAREN ETA LANKIDETZAREN ONDORIOAK

Azkoitia Herrilab +700: Herri Plana garatzeko prozesuari begira, edukia sortu eta osatzeko mekanismo eta kanal anitzak erabili dira. Horiek ezinbestekoak izan dira profil ezberdinetako pertsonengana iristeko eta horrela, Azkoitiak duen aniztasuna Herri Planean ere islatua egoteko. Gakoa, mekanismo eta kanal ezberdin horien bidez jasotako edukia integratzeko ardatza topatzea da. Hau da, aniztasuna iritzi bilduma batetik haratago joateak komunitatea sortzea dakar. Ahalegina norabide horretan jarri da eta integrazio bilatze horrek hainbat eduki eraldatzea ekarri du.

Egungo bizi estilo indibidualizatuak parte-hartzeko aukerak mugatzen dituela kontutan hartuta, aukera ezberdinak zabaltzeak, prozesua pertsona eta talde bakoitzaren beharretara moldatzea erraztu dezake eta pertsona eta talde horiek osotasun baten parte gisa kokatzea ekartzen du: "ni-tik gu-ra" jauzi egitea. Bilatzen den helburua hori izanik, Azkoitia Herrilab +700-en baitan egindako bigarren ariketa honetan ziur gaude Azkoitiko hainbat talde eta pertsonengan arrastoa utzi dela. Laburbilduz, mekanismo ezberdinen bidezko parte-hartzea honakoa izan da:

| MEKANISMOA | | PARTAIDE KOP. | E | G |
|---|---|---|---|---|
| Udal teknikariekin 1. Kontraste saioa | | 11 | 7 | 4 |
| Udal ordezkariekin 1. Kontraste saioa | | 9 | 4 | 5 |
| Aurkezpen batzarra | | 31 | 18 | 13 |
| Elkarrizketa sakonak | | 11 | 6 | 5 |
| Galdetegia | | 68 | 27 | 35 |
| Herri Kontseilua | 1. Saioa | 12 | 6 | 6 |
| | 2. Saioa | 10 | 5 | 5 |
| | 3. Saioa | 7 | 3 | 4 |
| Udal teknikariekin 2. Kontraste saioa | | 12 | 7 | 5 |
| Udal ordezkariekin 2. Kontraste saioa | | 8 | 5 | 3 |
| Batzar Irekia | | 17 | 7 | 10 |

Horrez gain, herritarren parte-hartzeari dagokionez, profil anitzagoak barne biltzea erronka izan da. Bereziki, beste jatorri eta kulturetako herritarren, zein gazteen eta 65 urtetik gorakoen presentzia mugatua izan da. Egoera honek herriaren ikuspegi orokorra izatea zailtzen du, garrantzitsuak diren zenbait ahotsek ez dutelako ordezkaritza nahikoa izan.

Bestalde, Herri Plan hau osatzeko burututako prozesua baliagarria izan da udalaren, herritarren eta herriko eragileen arteko elkarrizketak gauzatzeko. Herri Planaren amaierako txostenaz gain, prozesuak berak ekarpenak egin ditu herriko komunikazio bide eta harremanak indartze aldera. Izan ere, entzuketa ariketa handia izan da udalarentzan. Hala, agente ezberdinen artean gerturatzeko baliagarria izan da prozesu hau, nahiz eta herritarren aldetik udalarekiko mesfidantza sentipenak oraindik ere presente dauden. Azken honi aurre egiteko prozesuan landutakoaren arabera ekitea eta udalaren eta herritarren arteko hurbilpenean sakontzea garrantzitsua da lankidetzazko gobernantza publiko-komunitarioaren eredurantz pausoak emate aldera. Bide horretan, epe laburrean, udalak jasotako proposamenetatik bere gain hartuko dituen konpromisoak modu adostuan herritarrei itzultzea ezinbesteko urratsa da, epe laburrean (datozen aste edo hilabeteetan) egikaritzea komeni dena.

# 7. ERANSKINAK

**1. ERANSKINA**: ELKARRIZKETA TXOSTENA: DISKURTSOAK, IRITZIAK ETA PROPOSAMENAK

**2. ERANSKINA**: GALDETEGIEN TXOSTENA: EKINTZA PROPOSAMENAK

**3. ERANSKINA**: AZKOITIA HERRILAB +700: HERRI KONTSEILUA

**4. ERANSKINA**: AZKOITIA HERRILAB +700: HERRI PLANA

**5. ERANSKINA**: AZKOITIA HERRILAB +700: HERRI PLANAREN ERANSKINA

# ELKARRIZKETA TXOSTENA: DISKURTSOAK, IRITZIAK ETA PROPOSAMENAK

## SARRERA

Herri plana sortzeko prozesuan Azkoitia osatzen duten herritar interesatuek, eragile sozialek zein udal barruko egiturek parte hartuko dute. Izan ere, prozesuak herri mailako ikuspegi bateratua eratu eta jasotzea du helburu, erronka amankomunei elkarrekin ekiteko. Herri Planaren egitura proposamena hiru lan ildoren arabera ardazten da: herri identitatea, iraunkortasuna eta ongizatea. Lan ildo bakoitzak gai/eremu ezberdinei lotutako helburuak ditu:

**1-** Herri identitateari dagokionez, helburuek euskarari, kulturari, jatorri eta kultur aniztasunari, parekidetasunari eta partaidetzari egiten diote erreferentzia.

**2-** Iraunkortasunari lotuta, ingurumena, lurralde antolaketa eta azpiegituretan zein trantsizio ekonomikoan arreta jartzeko helburuak proposatzen dira.

**3-** Azkenik, ongizatearen lan ildoak, zaintza, etxebizitza, enplegua, eta kirola jarriko ditu erdigunean.




Hauek abiapuntutzat hartuz, besteak beste, sei elkarrizketa sakon egin dira, Azkoitiko herritar zehatzek duten ikuspegian sakontzeko. Txosten honek elkarrizketetatik eratorritako ekarpenak jasotzen dtu, Herri Planean txertatuko direnak.

# PARTE-HARTZAILEAK

Elkarrizketetan parte hartzeko pertsonak hautatzeko Udalean ordezkaritza duten lau alderdi politikoei profilen araberako proposamenak egiteko eskaera luzatu zaie. Hortik abiatuta, hamaika kide elkarrizketatu ditugu: lehenik eta behin, euskara, kultura eta partaidetzaz aritzeko bi pertsona; jatorri eta kultur aniztasuna eta parekidetasuna lantzeko beste bi; ingurumenari, lurralde antolaketari eta azpiegiturei lotuta ere bi kide elkarrizketatu ditugu; trantsizio ekonomikoaz merkataritza txikiaren eta lehen sektorearen ikuspegiak jasotzeko bi herritarrekin bildu gara; zaintzaz aritzeko pertsona batekin hitz egin dugu eta enplegua eta etxebizitza ardatz izanik bi pertsona elkarrizketatu ditugu.

| | |
|---|---|
| **GENEROA** | 5 GIZON ETA 6 EMAKUME |
| **ADIN TARTEA** | <30 = 2<br>31-60 = 8<br>>61 = 1 |
| **JATORRIA** | EUSKAL HERRIAN JAIOA = 8<br>BESTE HERRIALDE BATEAN JAIOA = 3 |

## EKARPENAK

Plan egituraren zirriborroaren balorazio orokorrak positiboak izan dira. Badaude gai batzuk zeharkakoak beharko luketenak izan: hala nola, euskara, partaidetza, ingurumena eta genero ikuspegia. Hala ere, egoki ikusten da gai hauetako bakoitzak helburu espezifiko bana ere izatea. Herri planean zenbait gairen zeharkakotasuna nola islatu/landu zehaztu behar da planaren txostenean nolabait.




### 1. EUSKARA

Erabilera nabarmen jaisten ari da gazteen eta haurren artean. Alde batetik pantailen erabilera handia delako eta bertan ez dagoelako euskarazko eduki erakargarririk. Bestalde, kultur aniztasuna kudeatzeko jatorri ezberdinetatik etorritako pertsonen erritmo, filosofia eta pentsaera ulertu behar dugu. Ez da etorkinen errua, gure jarrera da; gu gara lehenengo hitza beti gazteleraz egiten duguna haiei zuzentzean eguneroko gauza txikietan. Eta hala, haurrek ere erreferenteek egiten dutena errepikatzen dute.

**Zenbait gako:**

- Pantailak euskaraz: Lanketa egin behar da digitalizazioan ere euskara txertatzeko.
- Emakume zaintzaileen euskara ULERMENA helburu
- Euskaraz ez dakienari akonpainamendua egitea paradigmak gerturatzeko.

- Euskara lehenetsi eguneroko testuinguruetan. Herritar euskaldunon konpromisoari dagokio: Erronka, beraz, litzateke euskararen erabilera lehenestea edozeinen aurrean egoera informalean eta eguneroko gauzetan
- Euskararen ikuspegitik euskaraz aritzeko espazio informala bilatzen da, eta hori guztiz uztargarria da kulturarekin. Gainera, Azkoitian programatzen den kultur eskaintzaren %90a euskaraz da.

## *2. KULTURA*

Egun ikusten dugu haurrek ez dutela antzerkira joateko ohiturarik, ez dakitela antzerki bat ikusten, ez dakitela zineman lasai egoten. Beste alde batetik, kultur sortzaileak ez dira saretzen. Kultur koordinazioa beharrezkoa da ekintza isolatuetatik haratago joateko. Horretarako, ordea, finantzazioa behar da.

Udalaren partetik gauza gehiago egin behar dira baliabide ekonomikoak ematetik haratago; nolabaiteko aitorpenak kasu. Gainera egitasmoak egiten dira baina ez dago jarraipenik. Esaterako, galdetegia egin zuten, baina ez da horren itzulketarik ezta jarraipenik ere egon. Beti eragileak goaz udalaren bila eta gehienetan topatzen duguna da Udalaren aldetik betikoa egiten dutela, baina berria den zerbait proposatzera bagoaz, hasierako erantzuna beti dela ezezkoa. Eta jarrera horrek ez du laguntzen Herri Mugimenduetatik jaiotzen den kulturgintza eta Udal kultura politika hurbiltzeko.

Kultur-guneari dagokionez, kontua da eraikin bat izan baino lehen hor zer egingo den adostu behar dugula; zein izango den gune horren edukia. Erreferentzia handia egiten zaio Azpeitiko San Agustin-i, baina sortu aurretik egin zen prozesu osoa aztertu eta egin beharko litzateke Azkoitian ere, gerora eraikin egokia antolatzeko.

**Zenbait gako:**

- Kultur eskolak sustatu herritarrengan (bereziki gazteengan) kultur joera sortzeko
- Baliabide ekonomiko baxuak dituzten pertsonentzako kultur zerbitzuetarako laguntzak behar dira
- Kultur koordinazioa finantzatu
- Udala finantzazioaz haratago joan dadila: aitorpenak, martxan jartzen diren egitasmoen jarraipena, eragileengandik gertu egon eta lagundu
- Kultur-gunearen edukia lantzeko prozesua burutu: hor zer egingo den adostu eta kulturaren inguruko sentsibilizazioa eta lanketa egin, herritarrek kultura kontsumitzeko.

## *3. JATORRI ETA KULTUR ANIZTASUNA*

Immigrazioa normaltzen ari da Azkoitian. Hala ere, Azkoitia herri oso itxia da, ez bakarrik beste jatorri eta kultura batzuetako herritarrentzat; eta hori zaila da hausten. Gainera, beste leku batzuetatik datorren jendeak zenbaitetan ez du besteekin nahasteko interes berezirik; batzuetan emakumeek zailtasunak dituzte integratzeko beraiek edo haien senarrek ez dutelako nahi. Egia da euskararen ezagutza ez dela beharrezkotzat hartzen Azkoitian integratu ahal izateko, askotan Azkoitiarrek beraiek ere ez baitute euskaraz egiten. Hala ere, euskaraz ez jakiteak eragina du.

Euskararen ezagutza zabalduko balitz oztopo bat kenduko litzateke jatorri ezberdinetako jendearen arteko hurbilpenerako.

**Zenbait gako:**

- Elkar ezagutu behar dugu hobeto errespetatu eta onartzeko. Jendea nahastu eta ezagutzen denean, harreman hobeak egiten dira eta hori oso garrantzitsua da integraziorako. Bestearen kultura elkarbanatu eta ezagutzea bilatu beharra dago; lehen jaialdi bat egiten zen egiteari utzi zaiona. Dantzak, eskulanak, kultura ezberdinen erakusketak egiten ziren eta jendea hurbiltzen zen. Azken finean, ondo pasatzen dugunean ikasi egiten dugu
- Amak gure artean nahasten ez garela ikusten dute haurrek eta adibidea jarraitzen dute. Amen arteko ekintzak sustatu beharko lirateke eskolan harremandu eta haurrentzako adibide izateko.
- Aniztasuna ikuspegi integraletik landu beharko litzateke eta ez gizarte zerbitzuetatik. Izan ere, horrek aurreiritziak eraikitzen ditu, kanpotik datorren jendeak baliabideak bakarrik jasoko balitu bezala, ekarpenik egiteko izango ez balute bezala.

## *4. PAREKIDETASUNA*

Parekidetasunari lotutako helburua izan behar da emakumeen eta gizonezkoen arteko desberdinkeria ezabatzea eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak izatea. Kultur eta erlijioen ikuspegitik zenbait errealitatetan gizonezkoak eta emakumezkoak ezin dira gauza guztietan berdinak izan. Horregatik, bilatu behar dena aukera berdintasuna da.

Gizonek etxean duten ardura txikiagoa da oraindik ere eta emakume askok dependentzia ekonomikoa eta batzuetan hizkuntzari lotutakoa dute. Honek asko mugatzen du emakumearen askatasuna. Epe labur-ertainean, gizonezkoen zaintzari (zentzu zabalean) lotutako erantzunkidetasuna lantzea da erronka

Indarkeria funtsezko gaia da, ahalduntze lan handia egin denez, kasuen ikusgarritasuna ere handitu egin delako. Gaur egun herrian dugun protokoloan genero indarkeriari soilik erantzuten dio. Udalak ez du inor baliabide gabe utziko baina indarkeria sexualak zenbait espezifikotasun ditu modu ezberdinduan erantzutea eskatzen dutenak. Indarkeria sexualari genero indarkeriarentzako adostutako protokoloa eta baliabideak erabiliz erantzuten bazaio, erantzun bat emango da baina ez du era egokian lagunduko biktima dagoen egoeratik ateratzen. Horregatik, protokoloa indarkeria matxista guztiei erantzuteko zabaldu behar da. Garrantzitsua da gauza bakoitzari bere izenez deitzea; genero indarkeriak bikote edo bikote-ohi testuinguruan ematen diren indarkeriak soilik barne hartzen ditu, indarkeria matxistak kasu gehiago jasotzen dituen bitartean. Gutxi barru indarrean jarriko den Estatu mailako legeak indarkeria sexualari erantzuteko baliabideak zabaltzen ditu, genero indarkeriatik haratago.

**Zenbait gako:**

- Protokoloa indarkeria matxistei aurre egiteko izan beharko litzateke: kasu ezberdinen analisia egin eta kasu bakoitzak eskatzen duen era ezberdinduan erantzun ahal izateko baliabideak garatu behar dira protokoloarekin batera.
- Ahalduntze prozesuak landu behar dira, ez soilik ikastaroak

- Prebentzioa garrantzitsua da eta ondo lantzen da, baina mugimendu feministetatik, elkarteetatik eta abar betetzen den funtzioa da. Administrazio publikoak beste ardura batzuk ditu; oinarrian baliabideak eskaintzea.

## 5. PARTAIDETZA

Udala kexu da zerbait antolatzen duenean jendeak ez duela parte hartzen. Baina galdera izan beharko litzateke zer egiten duten Udaletik edo ez duten egiten herritarrek ez parte hartzeko; eta ez ardura herritarrengan jarri. Metodologiak bilatu behar dira jendeak parte hartzeko.

Udalak herriarentzako garrantzitsuak diren gaietan posizionatu behar du, nahiz eta gero dena ez dagoen Udalaren esku. Herriarentzako zer nahi dugun argi izan behar dugu eta horren alde borrokatu. Horretarako ezinbestekoa da herritarrekin eta eragileekin lankidetzan lan egitea. Hala ere, Udalak eragileekin egiten duen lankidetzan ikuspegia aldatu behar da. Udalak ezin du pentsatu eragileak beti ados egongo direla egiten duenarekin; ezin die hori eskatu. Ulertu behar du batzuetan desados egongo direla eta horrek ez ditu bestelako lankidetzak blokeatu behar. Herriak aurrera egin dezan, beharrezkoa da alderdien arteko aliantza eta lankidetza ere.

## 6. INGURUMENA, LURRALDE ANTOLAKETA ETA AZPIEGITURAK

Krisi eko-sozialari aurre egiteko prestatu behar gara. Pobrezia energetikoa gai potoloa da eta bizitzak erdigunean jarri behar dira, ingurumena eta alderdi soziala elkarren artean lotuta baitaude. Gainera, larrialdi klimatikoaren aurkako plangintza egin behar du Udalak. Naturaz baino, ingurumenaz hitz egitea egokiagoa da.

Horretarako, sentsibilizaziotik haratago joatea ezinbestekoa da: ekintzetarako pausoa eman behar da, proposamenak egin eta herria prestatu; herritarren eta arduradun politikoen formakuntza ezinbestekoa da, erabakiak hartu eta arduraz jokatu ahal izateko.

Orokorrean, ekintzetan herritarrak dira hartzaile edo arduradun bakarrak eta ez da argi geratzen zer pisu/ardura duen Udalak. Udalak erabaki politikoak hartu behar ditu, ardura publiko moduan onura publikorako hautua eginez. Udala proaktiboa izan behar da; ez soilik herritarrei eskatu, Udaletik ere ardura hartu behar da, proposamenak egin, etab.

Energiari dagokionez, herriarentzako landuko den eredu energetikoa zehaztu behar da, energia autokontsumoaren inguruko hausnarketa kolektiboa eginez, herrira hoberen egokitzen den eredua lantzeko. Kooperatibak egin daitezke baina Udalak izan behar du iniziatiba. Herri bezala energetikoki zer nahi dugun zehaztu behar dugu, herria formatu eta honi lotutako herri plan bat garatzeko.

Hondakinen kudeaketaz ari garenean, gehien bat zaborraz ari gara. Herriarentzako sistema bat definitu behar da; diagnosia egin eta eredu egokiena hautatu. Kontutan hartu behar da egun ezarritako sistema gaizki atera dela; izan ere, birziklapen tasak behera egin du. Hau ez da gazteen arazoa bereziki; gazte gehienek zaborra modu arduratsua kudeatzen dute. Hau lantzeko garbigune brigada itinerantea jarri daiteke astean behin, birziklapenerako konpentsazio ordenantzak egin, komertzio eta enpresen atez atekoa ezarri… Hala ere, testuinguru honetan, erronka ez da zaborra ondo birziklatzea, kalea txukun mantentzea; baizik eta zaborra murriztea. Eta hau kontsumo ohiturei oso lotua dago.

**Zenbait gako:**

- Udalak proaktiboa izan behar du, propositiboa eta hausnarketa kolektiboen gidari nagusia.
- Udalak ordenantzak egin behar ditu, ereduak adosteko prozesuak bultzatu eta lideratu, partaidetza espazioak zabaldu, etab.
- Udalak bere gain ardura gehiago hartu beharko lituzke, partaidetza mahai gehiago osatuz; azpikontratazioek arazo handia ekartzen dutelako, enpresek indar handia hartzen baitute
- Ekintzek Azkoitiko bizi baldintzak hobetzeko balio behar dute.
- Herritar foro bat behar da ekonomia, natura eta gizartea bera ardatz izango dituena.
- Herritarren eta arduradun politikoen formakuntza beharrezkoa da.
- Herriarentzako energia eta hondakin kudeaketa sistemak zehaztu behar dira; ereduak adosteko prozesuak bultzatu eta lideratu behar ditu Udalak.
- Eraikin publikoak eredu izan behar du eta egiten dena herriari komunikatu behar zaio.
- Ekonomikoki garestiak ez diren hainbat gauza esanguratsu egin daitezke herrian gai honi lotuta

## *7. TRANTSIZIO EKONOMIKOA*

Orain arte ezagututako baserri eredua bukatzen ari da: ekoizpen intentsiboaren aurrean dibertsifikazioa, produkzio txikia eta salmenta zuzena izan behar dira baserriaren oinarri eta hori da sustatu behar dena. Etorkizunean, baserria ekologikoa ez bada ez da izango. Gainera, belaunaldi berrien falta dago; baserritar bezala lan egitea ez da erraza, lana bikoitza da, lana gogorra da baina egia da gauza onak ere badituela. Bestalde, geroz eta traba administratibo gehiago dago. Jakien prezioa ere oztopo handia da kontsumorako; Izan ere, gaur egun jakian proportzionalki gutxiago gastatzen da lehen baino.

Baserritarrentzako salmenta zuzena oso garrantzitsua da eta egoera larrian dago. Azoka ez da erakargarria. Arazo moduan kudeatu da Udaletik. Udala garaiko produktuen inguruko sentsibilizazioa egiten ari da Udalaren aldizkariaren bitartez. Pandemia garaian bertakoa gehiago baloratzen hasi zen baina jendea berriz ere hasi da beste lekutara joaten kontsumitzera; plataforma handietara eta abar.

Batez ere gazteen kasuan, ez dira azokara hurbiltzen. Hala ere, hausnarketa sakona egin beharko litzateke erakundeen aldetik, ez soilik kontsumitzaileei begira, bertako produktuak kontsumitzearen balioaren inguruan; gutxi barru energia krisiarekin eta abar, ikusiko da zer dakarren inguru batean baserritar sare sendo bat egoteak. Ekoizleen ikuspegitik ere, badaude ekoizle Azkoitiar potenteak baina ez dira azokara joaten. Gainera, muga administratibo handiak daude azokako postuak dinamizatzeko; higiene arauak oso zorrotzak dira, eskatzen duen inbertsioa handia da eta ez dago jende asko prest, gazteek ikusten dute lehen sektorea ez dela bideragarria… Horregatik, ezinbestekoa da azokako postuak negozio moduan ulertzeari uztea; postuak ezin dira Udalarentzako negozio izan.

Merkataritza txikiari dagokionez, zerbitzuak eskaintzen dituzten negozioak hobeto doaz baina produktuak saltzen dituztenak beheraka doaz. Belaunaldi berriak ez dira ari merkataritza txikiaren aldeko aposturik egiten. Gainera, dendariak geroz eta gehiago erakarri behar du, zerbaitengatik bereizten ez diren komertzioak ixten ari dira; aparteko zerbait eskaini behar da, bezeroek bestela aukera hori ez dute kontsideratu ere egiten. Erronka da herritarrek behintzat aukera bat ematea herriko merkatariei. Merkataritza txikiaren aldeko sentsibilizazioa egin behar da baina horrek denbora behar du. Merkataritza txikiak beste balio batzuk ditu: kaleari bizitza ematen dio, arropa modu erosoan probatu daiteke…

Ekonomia arduratsuaz ari garenean, ekologia ikuspegia beharrezkoa da baina egoera hain larria da, lehentasuna merkataritza bera mantentzea dela; gero saiatuko gara bertakoa eta iraunkorra izan dadila. Hala ere, denda asko horren inguruko lanketak egiten ari dira baina bezeroa ez da hain kontziente, kontsumitzaileak batez ere prezioa begiratzen du eta hori aldatzeko kontsumo ohituren inguruko lanketa bat egitea beharrezkoa da. Nerabeekin, esaterako, ari da lanketa egiten, baina kontsumitzen hasten diren herritar gazteak (22-30 urte) galtzen ditu merkataritza txikiak. Gazteek kontsumo ohiturak oso bestelakoak dituzte, online salerosketaren bidez, merkatal gune handietara joanez, etab.

**Zenbait gako:**

- Azoka erakargarriago bilakatu eta azokaren garrantziaren inguruko sentsibilizazioa egin ekoizle eta kontsumitzaile berriak sartzeko
- Azokara hurbiltzen denari erraztasuna eman behar zaio, arautegia malgutuz eta baliabideak emanez.
- Baserri eredu berriak pentsatu behar dira: kudeaketa kolektiboan oinarrituta, ez hainbeste familia eredu tradizionalean; gaur egun ez delako bideragarria antolaketa eredu hori.
- Baserritar bakoitzaren eta ekoizten dituen produktuen identifikazioa egin, ikusgarritasun gehiago emateko.
- Arlo burokratikoa sinplifikatzea ezinbestekoa da
- Herrixenek bidelana egin dezake kontsumo zirkularra indartzeko: herriko ostalariek, eskoletako jangelek, lantokiek, etab. herriko ekoizleen produktuak erosteko.
- Ikuspegi ekonomiko hutsetik haratago joango den lanketak egitea beharrezkoa da: sentsibilizazio kanpainak, merkataritza txikiaren balioak indartzea, merkatu globalaren arriskuez ohartzea, etab.
- Epe laburrera begirako irtenbideak beharrezkoak dira, sentsibilizazioa egiteaz gain, bestela, herritarren kontzientziazioa lortzen dugunerako, beranduegi izango da eta merkataritza txikia galduko dugu.
- Merkatariak egoera berrietara egokitzen laguntzea beharrezkoa da, sare sozialak erabiliz, marketing kanpainen bidez, etab. Gakoa da babesgabe ez sentitzea

### *8. ZAINTZA*

Zaintza gai garrantzitsua da, bereziki jendea geroz eta helduagoa delako. Azken urteotan gizarte zerbitzuetan pauso handiak eman dira. Hasieran ez zegoen ezer eta pixkanaka, lehen seme-alabek egin behar zuten guztia maila publikoan laguntzen da.

Caritas eragile garrantzitsua da: arropa eta janaria kudeatzen ditu behar duten pertsonentzako, osasun laguntzak ere ematen ditu, garraiorako, etab. Udalak laguntzen du baina Cáritas egongo ez balitz zulo handia geratuko litzateke: laguntza haien bitartez nahiko ondo antolatzen da herri mailan. Askotan bertakoek ez dute elikagai bankura joan nahi izaten nahiz eta beharra izan, lotsagatik. Caritasek pertsona hauek ere laguntzen saiatzen da.

Pertsonen menpekotasun egoera larritzen denean, askotan hobeto daude egoitzan etxean baino; izan ere, ekintzak izaten dituzte, baita ezagunak ere. Egoitzaren gaia gatazkatsua dela agerian geratu da Herri Plana osatzeko prozesuan. Elkarrizketak egiteko pertsonekin harremanetan jarri garenean, egoitzari lotutako eztabaidak tentsioa eragiten duela ikusi da. Alde batetik, herritarrekin egindako Aurkezpen Batzarrean gai honi heldu zieten ekarpenek egoitzaren kokapenaren inguruko iritziak mahai gaineratu zituzten. Hiru hitz hartze egon ziren esplizituki egoitzaren kokapena aldatzearen alde, herrira jaitsi behar dela iritziz. Aitzitik, Aurkezpen Batzarrean entzun ez zen beste ikuspegi bat ere badago herrian gai honi lotuta, egoitzako irisgarritasuna hobetu behar dela defenditzen duena, baina lekua egokia dela bertan dauden pertsonen beharretara hobeto egokitzen delako: jende askok ez du kalera atera nahi, leku baketsua behar dute eta berdeguneak daude inguruan lasai egon ahal izateko. Irisgarritasunari dagokionez, Urbanoa igotzen da eta gainera, iristeko dagoen aldapa ekiditeko Udalak igogailua jartzeko asmoa dauka. Udalak ez du ez baiezko ez ezezko erantzun argirik eman gaur arte eta korapilo hori askatzea erronka garrantzitsua da zaintza eredu propio bat garatze aldera prozesu eraikitzaile bat egin ahal izateko eta egoitzaren kokapenaren gaian ez trabatzeko.

Egoitzan pertsonal falta dago, lan baldintzak hobetu behar dira, kontratazio politika gorabeheratsua da, ez dira eguneroko zenbait gauza zaintzen... Ardura Gipuzkoako Foru Aldundiarena da baina Udala eskua nolabait sartzeko modua eduki beharko luke bertako baldintzak hobetzeko. Erakunde publikoen ardura da zerbitzu ona ematen dela kontrolatzea, nahiz eta azpikontratatutako enpresek kudeatzen duten egoitza; azken batean, enpresek bete beharreko gutxieneko baldintzak administrazio publikoak zehazten ditu.

Lehen familiarrak asko joaten ziren eta langileen hutsuneak betetzen zituzten: merienda eman, haiekin egon, eta abar. Baina Covid-19arekin egoera asko zaildu zen; ezin zen inor joan, ezin zuten haien artean harremandu. Ez zen inor hil baina isolamendu eta bakardade handia zegoen. Gerora, bixitak asko jaitsi dira eta pena bat da bertakoek asko eskertzen dutelako herritarren presentzia, ekarpen handia egiten dute. Horretarako dagoen arazoetako bat da zuzendaritzak oztopoak jartzen dituela eta horrek herritarrekin harremanak zailtzen dituela. Egoitzako zuzendaritzak tratuan ez du konturik ez erabiltzaileekin, ez familiarrekin ez eta langileekin ere. Gainera arauak orain oso zorrotzak dira.

Egoitzan tutoretzapeko bizilekuak ere badaude: gela, sala, sukaldea eta komuna dute. Egoitzako zerbitzuak erabili ditzakete baina bertan bizi direnak autonomoak dira. Egoitzako azken pisuan daude bizileku hauek baina ez dira ia erabiltzen. Bertara joaten den jendea ez da denbora askorako bertan egoten: bi edo hiru urtera zerbait gertatzen da eta menpekotasuna

garatzen dute, autonomia galduz. Eguneko zentroa ere egoitzan dago eta beraientzat egokitutako ekintzak egitera joaten dira menpekotasun handia duten pertsonak, gehien bat.

**Zenbait gako:**

- Caritasek lan handia egiten du laguntza behar duten pertsonez arduratuz.
- Herritarrak bixitan joatea interesgarria da, nahiz eta bertan familiarrik ez izan.
- Egoitzaren eta herritarren hartu-emana errazteko Udalak lanketa egin dezake, herritarren partaidetza eta harremanak bideratzeko eta Egoitzako zuzendaritzarekin negoziatzeko.
- Tutoretzapeko bizilekuak eta eguneko zentroa herrira ekartzea agian proposatu daiteke.

## *9. ENPLEGUA*

Lanbidek formazio eskaintza zabala du. Lan mundurako sarbideari dagokionez arazo nagusietako bat da jendea ezagutu behar dela, ahoz aho zabaltzen da hori, jendeak lana bilatzen dugunongan konfiantza izatea. Herrian eta inguruan sarea izatea, beraz, oso garrantzitsua da enplegu ateak zabaltzeko.

Irregulartasun administratibo egoeran dauden pertsonek zailtasun handiak dituzte lehenengo hiru urteetan, erregularizazio prozesua egin dezaketen arte. Izan ere ezin dute lanik egin eta zerbait behar dute, sarbide ekonomiko minimo batzuk, hemen bizi ahal izateko. Gainera bankuek ez diete kontu korronterik irekitzen pertsona hauei hainbatetan eta zerbitzu eta programa askotarako kontu korrontea eskatzen da gaur egun. Gainera, hiru urte bete eta erresidentzia baimena eskatzeko kontratua eskatzen dute. Haatik, kontratua sinatzeko "paperak" eskatzen dituzte. Orduan, kiribil batean sartzen dira egoera honetan dauden pertsonak eta bitartekariak ordaintzen dituzte maiz, lanik egin gabe, kobratu beharrean ordainduz erresidentzia eskaera egin ahal izateko.

**Zenbait gako:**

- Enplegura sarbidea erraztu behar zaie bertan 3 urte bete dituzten edo laster beteko dituzten pertsonei, erregularizatu ahal izateko eta legeari jarraituz lan egin ahal izateko.
- Udalak ate ireki jardunaldiak antolatu litzake, enplegu bila dabilen jendea eta negozioak edo enpresak dituzten pertsonak elkartu ahal izateko, hitz egin, elkar ezagutu, konfiantza garatu, etab.
- Udalak mapeoak egin ditzake herrian dauden enplegu behar eta lan bilatzaileak identifikatu eta zubi lanak egiteko.
- Negozio propioak abiatzeko laguntzak behar dira ekintzailetza prozesuak errazteko
- Irregulartasun administratibo egoeran dauden pertsonek nolabait diru pixka bat atera ahal izateko ekimenak behar dira; hala nola, elikadura produktu salmenta postu txikiak jarri ahal izatea.

## *10. ETXEBIZITZA*

Etxebizitza alokairuak oso garesti daude, asko igo da eta baldintza asko eskatzen dira alokatu ahal izateko: fiantza handiak, nominak, etab. Gainera etxe batzuk oso zaharrak daude, baldintza oso txarretan, baina jabeek arazorik gabe alokatzen dituzte dagoen beharraz baliatuz.

Jendea ezagutzea beharrezkoa da, konfiantza oso aldagai erabakigarria delako alokatzerako orduan. Etxe asko hutsik daude oso zaharrak direlako baina baita konfiantza gabeziagatik ere.

**Zenbait gako:**

- Udalak alokairu prezioak erregulatu beharko lituzke zonaldearen eta etxebizitzaren baldintzen arabera
- Udalak etxebizitza boltsa bat egin dezake herri mailan
- Etxeak baldintza duinetan alokatzeko inbertsio ekonomikoa egin behar da jabeek etxe zaharrak zaharberritzeko.
- Udalak bitartekari lana egin lezake jabeen eta bizilekua bilatzen dutenen artean, ez soilik etxea topatzeko, baita alokairuak iraun bitartean ere, berme moduan.
- Jabeen eta maizterren arteko konfiantza lantzea beharrezkoa da.

## *11. KIROLA*

Udal kirol zerbitzuetara sarbidea izateko laguntzak behar dira baliabide ekonomiko baxuak dituzten pertsonentzat.

# ONDORIOAK

Laburbilduz, txostenean zenbait gairen zeharkakotasuna nola landu eta islatu aztertu behar da. Bestalde, lan-ildoak eta helburuak orokorrean egokiak dira eta ondo antolatuta daude. Helburuei dagokionez, parekidetasunaren eta ingurumenaren helburuak birformulatzea proposatu dute elkarrizketatuek.

Ekintzei lotuta, sentsibilizazioaz haratago, Udalaren ardura baliabideak, hausnarketa prozesuak eta politika publikoak garatzea beharko luke izan. Gainera, herritarren eta eragileen egitasmoak babestu eta erraztea garrantzitsua da elkarrizketatutako kideentzat. Hala, lankidetzan oinarritutako ikuspegitik lan egitea proposatzen da; bai alderdien artean, baita erakunde publikoen eta eragile sozialen artean, bakoitzaren rola zein den aintzat hartuta.

# GALDETEGIEN TXOSTENA: EKINTZA PROPOSAMENAK

## SARRERA

Herri plana sortzeko prozesuan Azkoitia osatzen duten herritar interesatuek, eragile sozialek zein udal barruko egiturek parte hartuko dute. Izan ere, prozesuak herri mailako ikuspegi bateratua eratu eta jasotzea du helburu, erronka amankomunei elkarrekin ekiteko. Herri Planaren egitura proposamena hiru lan ildoren arabera ardazten da: herri identitatea, iraunkortasuna eta ongizatea. Lan ildo bakoitzak gai/eremu ezberdinei lotutako helburuak ditu:

**1-** Herri identitateari dagokionez, helburuek euskarari, kulturari, jatorri eta kultur aniztasunari, parekidetasunari eta partaidetzari egiten diote erreferentzia.

**2-** Iraunkortasunari lotuta, ingurumena, lurralde antolaketa eta azpiegituretan zein trantsizio ekonomikoan arreta jartzeko helburuak proposatzen dira.

**3-** Azkenik, ongizatearen lan ildoak, zaintza, etxebizitza, enplegua, eta kirola jarriko ditu erdigunean.




Hauek abiapuntutzat hartuz, besteak beste, galdetegi bat zabaldu da, Azkoitiko herritar, talde eta antolakundeek Herri Planerako ekintzak proposatzeko. Txosten honek galdetegiaren bidez jasotakoa islatzen du, Herri Planean txertatuko dena.

# PARTE-HARTZAILEAK

Galdetegia edozein herritarrek bete ahal izateko eskuragarri egon da ekaina eta uztaila arteko hiru astetan zehar formatu ezberdinetan: online, esteka baten bitartez; paperean, Udaletxean, Elkargunean eta Liburutegian; eta telefonoz, nahi izanez gero, deitu eta betetzeko. Bi orrialdeko galdetegia euskaraz eta gaztelaniaz zabaldu da.

Guztira 115 aldiz hasi dira betetzen eta horietatik 68 galdetegi jaso dira bukatuta. Horietatik 32 bete dira paperean, 35 online eta 1 telefonoz. Generoari dagokionez, 35 emakumeek bete dituzte, 27 gizonezkoek eta 6k ez dute erantzun nahi izan. Adinari erreparatuta, 6 erantzun jaso dira 30 urtetik beherako herritarrengandik, 31 eta 60 urte arteko 27 galdetegi heldu dira eta 61 urtetik gorakoengandik 20. Azkenik, hizkuntza aintzat hartuta, 56 izan dira euskaraz betetakoak, 4 gaztelaniaz eta 8 bi hizkuntzetan.

| | |
|---|---|
| **GENEROA** | GIZONEZKOA = 27<br>EMAKUMEZKOA = 35<br>EZ DUT ERANTZUN NAHI = 6 |
| **ADIN TARTEA** | <30 = 6<br>31-60 = 27<br>>61 = 20<br>EZ DUT ERANTZUN NAHI = 15 |
| **HIZKUNTZA** | EUSKARA = 56<br>GAZTELANIA = 4<br>BIAK = 8 |

## GAI-EREMUAK

Gai-eremuari lotuta, Ingurumena, lurralde antolaketa eta azpiegiturari lotutako proposamenak izan dira gehiengoa (23), zaintzaren ingurukoek jarraituta (11). 2021eko Herri Diagnostikoan adostu zenarekin bat eginez, argi ikusten da bi gai hauek garrantzi berezia dutela une honetan Azkoitiko herritarrentzat eta, beraz, Herri Planerako arreta berezia eskatzen dutela.



# ONDORIOAK

Laburbilduz, Herri Plana osatzeko prozesuarekin jarraitzeko, interesgarria izan daiteke ingurumenaren atala banatzea helburu ezberdinen arteko argazki orekatua eskaintze aldera. Horretarako egitura lagungarria honakoa izan daiteke:

- Energia
- Mugikortasuna
- Irisgarritasuna
- Hondakinen kudeaketa
- Natura

Gainera, galdetegiaren bidez jasotako ekintza proposamen kopuruari elkarrizketetan eta beste espaziotatik eratorritako proposamenak gehitu behar zaizkio. Hala, Herri Plana osatzeko hurrengo pausoen bitartez, ekintza hauek osatu, berrantolatu eta lehenestea izango da erronka.

# AZKOITIA HERRILAB +700:

# HERRI KONTSEILUA

## SARRERA

Herri plana sortzeko prozesuan Azkoitia osatzen duten herritar interesatuek, eragile sozialek zein udal barruko egiturek parte hartu dute. Izan ere, prozesuak herri mailako ikuspegi bateratua eratu eta jasotzea du helburu, erronka amankomunei elkarrekin ekiteko.

Prozesu honen baitan, metodologia ezberdinak erabili dira parte hartzea errazteko. Besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz Sailak lagunduta, "Gipuzkoako Instituziotan Herri Kontseiluak/Behatokiak sortzeko eta garatzeko web gida" Gobernantzaren Eraldaketarako proiektuaren parte izan da Azkoitia. Hala, Herri Plana garatzeko bidean, Herri Kontseilua eratu da; hau da, ausaz hautatutako herritarren lan taldea. Herri Kontseilu honek, Herri Planerako herritarrek egindako ekintza proposamenak aztertu eta lehenetsi egin ditu.

## PARTE-HARTZAILEAK

Ausazko Taldea "Zozketa bidez eta irizpide zehatzen arabera hautatutako herritar talde anitz bat da, gai/proiektu jakin baten inguruan informatu, hausnartu, eztabaidatu eta kontsentsuz erabakiak hartzeko ahalmena aitortzen zaiona. Horrela, herritar taldearen funtzioa izango da gai bat sakontasunean landu eta, ongizate komunaren ikuspegitik, aukera eta irtenbide egokienak zehaztea" (Ausaz hautatutako herritarren lantaldeak. Gida).

Ausazko taldearen sorrerak prozesu eta urrats jakin batzuk ematea eskatzen du:

1. Laginaren ezaugarrien definizioa. 21 pertsonako lan taldea izatea definitu da, adina, generoa eta auzoa kontutan izanda, jarraian agertzen diren banaketarekin:

| Gizonak | 16-34 urte | 35-49 urte | 50-64 urte | 65+ urte | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 distritua (leturiondo, altzibar, landakaranda) | 1 | 1 | 1 | | 3 |
| 2 distritua (estrada, floreaga, ubaiar) | 1 | | 1 | 1 | 3 |
| 3 distritua (zentroa, jausoro, altamira, san martin) | 1 | 2 | 1 | 1 | 5 |
| Emakumeak | 16-34 urte | 35-49 urte | 50-64 urte | 65+ urte | Guztira |
| 1 distritua (leturiondo, altzibar, landakaranda) | | 1 | | 1 | 2 |
| 2 distritua (estrada, floreaga, ubaiar) | 1 | 1 | 1 | | 3 |
| 3 distritua (zentroa, jausoro, altamira, san martin) | 1 | 1 | 1 | 2 | 5 |
| Guztira | 5 | 6 | 5 | 5 | 21 |

2. Hautagaiekin harremanetan jartzea. Behin laginaren ezaugarriak definituta, zozketa egin da udalaren errolda erabiliz. Hala, 231 herritarren zerrenda osatu da, beharrezko profil bakoitzeko 11 hautaturekin. Zerrenda honetako herritar bakoitzari Herri Kontseiluan parte hartzeko gonbidapen gutuna bidali zaio, e-mailez edo telefonoz parte hartzea konfirmatzeko eskatuz. Gainera, erroldan jasota dauden telefonoetaz baliatuz, deiak egin zaizkie hautatutako herritarrei.
3. Partaidetzaren onarpena eta oniritziak jasotzea. Aipatutako bide hauek erabiliz, 16 baiezko lortu dira, honako ezaugarriekin:

| Gizonak | 16-34 urte | 35-49 urte | 50-64 urte | 65+ urte | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 distritua (leturiondo, altzibar, landakaranda) | 1 | | | | 1 |
| 2 distritua (estrada, floreaga, ubaiar) | | | 2 | 1 | 3 |
| 3 distritua (zentroa, jausoro, altamira, san martin) | | 2 | 1 | 1 | 4 |
| Emakumeak | 16-34 urte | 35-49 urte | 50-64 urte | 65+ urte | Guztira |
| 1 distritua (leturiondo, altzibar, landakaranda) | | | | 1 | 1 |
| 2 distritua (estrada, floreaga, ubaiar) | 1 | 1 | 1 | | 3 |
| 3 distritua (zentroa, jausoro, altamira, san martin) | 1 | | 2 | 1 | 4 |
| Guztira | 3 | 3 | 6 | 4 | 16 |

Azkenean, 12 kide bertaratu dira aurkezpen saiora, 10 lehenengo lan saiora eta 7 bigarren lan saiora. Taldearen eginkizuna izan da Herri Planaren zirriborroaren proposamenak ezagutzeko beharrezko informazioa jasoz, proposamenaren egokitasunaren gainean hausnartzea, kontsentsuz zenbait ekintza lehenetsiz. Hala, honakoa izan da Herri Kontseiluak erantzun duen galdera:

*Azkoitia Herrilab +700 egitasmoaren baitan Herri Plana garatzen ari da modu konpartituan Udalaren eta herritarren artean. Herri Planaren zirriborrotik abiatuta, nola hobe daitezke proposamenak? Zerbait falta da? Zeintzuk dira lehentasunak?*

## SAIOAK

Behin taldea sortuta, hiru saio burutu dira: aurkezpen saio bat eta lanerako bi saio. Saio guztiak astelehen arratsaldez izan dira Elkarguneko Oteiza aretoan.

Aurkezpen saioa. Irailaren 26ean ordu bateko saioa burutu da, 18:00-19:00 bitartean. Saio honetan, arduradun politikoek (alkateordea eta oposizioko kide bat) herritarrei harrera egin zieten eta Herri Planaren prozesuaren nondik norakoak aurkeztu. Bestalde, herri kontseiluen metodologia azaldu zitzaien eta, zehazki, herri kontseilu honen egitekoa. Ondoren, lan taldeak elkar ezagutzeko dinamika bat burutu zen. Azkenik, Herri Planaren zirriborro dokumentua azaldu zitzaien eta horren inguruko lehenengo balorazioak jaso ziren.

Lehenengo lan saioa. Bi ordu eta erdiko saio honetan zehar, parte-hartzaileek zirriborroaren inguruan zituzten zalantzak partekatu, argitu eta balorazio bat egin zuten; lehenengo banaka eta gero taldeka. Ondoren, Herri Plana osatzeko proposatutako ekintza guztietatik batzuk lehenetsi zituzten.

Bigarren lan saioa. Bi ordu eta erdiz elkartu ziren Herri Kontseiluko kideak azken saiorako. Aurreko egunean egindako lehenestetik abiatuta, ekintza proposamen zerrenda txukunduta eraman zen. Hala, herritar guztien artean lehenetsitako ekintzen inguruko hausnarketa eta elkarrizketa kolektiboa burutu zuten, moldaketa aukerak aintzat hartuz. Gero, prozesuaren balorazio orokor bat egin zen taldean. Amaitzeko, udal ordezkariak (alkateordea eta oposizioko kide bat) bertaratu ziren parte hartzeagatik eskerrak eman eta herritarrei otar bana banatzera, parte hartzea eskertzeko.

## EBALUAZIOA

Saio bakoitzaren amaieran ebaluazio fitxa bat betetzeko eskatu zitzaien partaideei bi helbururekin: saio bakoitzeko balorazioa jasotzea eta prozesua bere osotasunean baloratzea. Horretarako galdera ezberdinak erantzuteko eskatu zitzaien formatu ezberdinetan (aukera anitzeko erantzuna, erantzun irekia, zenbakizko balorazioa, etab.)

Aurkezpen saioa. Gutuna heldu aurretik, parte-hartzaileen erdiak baino gehiagok ez zuen prozesuaren berri. Hau kontutan hartuta, orokorrean, lehen saioan eta saioaren aurretik jasotako informazioaren balorazio positiboa egin dute partaideek (7tik gorako batez bestekoa). Bestalde, saioan zehar erabilitako metodologia, giroa, lekua eta ordua ere egoki ikusi dute (8tik gorako batez bestekoa).

Herri Kontseiluaren erabilgarritasunari lotuta iritziak oso ezberdinak izan dira: 0tik 10erako eskala batean gehiengoak 7 edo 8 punturekin baloratu badu ere, badira 0, 2 eta 5 puntuko balorazioa eman duten kideak ere, 5,9ko batez bestekoa gelditu delarik 0tik 10erako eskala batean. Azkenik, prozesuan parte hartzen jarraitzeko gogoa agertu dute kideek, 0tik 10erako eskala batean, 7,82ko batez besteko puntuazioarekin.

Lehenengo lan saioa. Saio honetako metodologia, dinamizazioa eta giroa modu positiboan baloratu dira, aurkezpen saioaren antzerako puntuazioarekin. Hausnarketarako, adostasuna bilatzeko, informatzeko, iritzi ezberdinak entzuteko eta elkarlanean herrian eragiteko aukera eman duela adierazi dute. Bestalde, gehiago sakontzeko edo hobeto azaltzeko denbora falta somatu dute partaideek eta Herri Kontseiluan zehar egindako lanketa eta lehenestea aintzat hartzeko beharra azpimarratu dute.

Bigarren lan saioa. Saioaren metodologia, dinamizazioa eta giroa modu positiboan baloratu dira. Baita Herri Kontseiluan landutakoaren ostean elkarrekin sortutako edukia ere. Jasotako informazioa eta haren ulergarritasuna egoki baloratu dute partaideek, baita partaide ezberdinen hitz egiteko aukera. Prozesuaren iraupena eta partaide kopurua izan da zalantzan jarri den puntu nagusia. Izan ere, hausnarketa sakonagoak egin ahal izateko denbora falta eta pertsona kopuru eta profil aniztasun (bereziki adinari dagokionez) handiagoaren beharra adierazi dira hutsune moduan. Azkenik, partaideen aldetik udalak Herri Kontseiluaren erabakiekin duen konpromiso mailarekiko mesfidantza edo zalantza sentipenak lausotu arren, azken saioan ere zenbait partaidek adierazi dute lanketa hau ezerezean geratzearekiko beldurra. Hala ere, Herri Kontseiluarekin orokorrean pozik agertu dira partaideak.

# ONDORIOAK

Herri Kontseiluak partaideen arteko aniztasuna bermatzeko balio izan du. Alde batetik, bestela halako prozesu batean parte hartuko ez lukeen pertsonengana heltzeko aukera eman du ausazko prozedurak. Hala, identitate, izaera, adin eta kokaleku ezberdinetako pertsonak biltzeko aukera eman du. Hau zalantzazkoagoa izan ohi da beste foro batzuetan, zeinetan gaiarekiko interesa duten herritarrak hurbiltzen diren soilik.

Bestalde, 21 pertsonako taldea osatzeko bidalitako 231 gutunak ez dira nahikoa izan. Gainera, kontutan izan behar da parte-hartzaile kopurua jaitsi egin dela saio batetik bestera. Bereziki, gazteak eta 65 urtetik gorako pertsonak halako prozesu batera erakartzeko zailtasuna nabarmen gelditu da. Ezezkoa eman duten pertsonen artean, badira parte hartu nahi ez duten herritarrak, baina baita ezin dutenak ere. Azken hauen kasuan, kontziliazioa eta lan edo ikasketa ordutegia izan dira oztopo nagusia. Izan ere, halako prozesu batekin konprometitu ahal izateko egungo bizi baldintzak ez dira, orokorrean, lagungarriak. Horregatik, baldintza horiek erraztuko dituen lanketa egitea beharrezkoa da.

Edukia sakonki lantzeko denbora gehiagoren beharra sumatu bada ere, udal organoen eta herritarren arteko informazio kanal moduan Herri Kontseiluaren oso balorazio positiboa egin da herritarren partetik. Herritarren artean elkarri entzuteko eta norbere ikuspegi edota interes indibidualetik haratago herrian arreta jartzeko ere baliagarria izan dela azpimarragarria da.

Metodologia honetan sakontzen jarraitzeko, partaideek Udalak aurretik konpromiso minimo batzuk zehaztearen garrantzia azpimarratu dute, bertan egiten den lana errekonozitzeari dagokionez, parte-hartzaileei sari bat ematetik haratago. Hau da, herritarrei eskatzen zaiena kontutan hartuta, Udalak Herri Kontseiluak hartzen dituen erabakiak -edo behintzat erabaki batzuk- eta egiten dituen gomendioak jaso eta bideratzeko konpromisoa hartzea ezinbestekoa da.

# AZKOITIA HERRILAB +700:
# HERRI PLANA 2022

# AURKIBIDEA

SARRERA ........ 3

LAN ILDOAK ........ 4

HELBURUAK ........ 5

HERRI KONTSEILUAK LEHENETSITAKO EKINTZAK ........ 6

HERRI KONTSEILUAK LEHENETSITAKO EKINTZAK GARATUTA ........ 7

ADOSTASUN MAILA BAXUAREKIN HERRI KONTSEILUAK LEHENETSITAKO EKINTZAK........ 15

KRONOGRAMA........ 16

LANKIDETZAK ADMINISTRAZIO MAILAN ........ 17

ONDORIOAK........ 18

IKUSPEGI EZBERDINETATIK EGINDAKO BALORAZIOA........ 19

# SARRERA

2024. urtean herriaren 700. urteurrena inflexio puntu garrantzitsua izatea proposatzen da Azkoitian. Azkoitia Herrilab +700 prozesuaren abiapuntutik zeharka dagoen ideia da hori. Hainbat dira azken urteotan garatutako parte-hartze prozesu, plan eta txostenak; hala nola, 2019-2023 Legealdi Plana, Azkoitia Lagunkoia (2019), 2020-2024 Adikzioen Prebentzio Komunitarioko Udal Plana, Mapa Morea (2020), kultur elkarteei helarazitako galdetegia (2021) edota Euskara mahaia edo Hezkidetza foroa bezalako foro iraunkorretatik jasotako informazioa. Gainera, gaur egun martxan daude Irisgarritasun eta Berdintasun Planak eta 2021-2024ko Iraurgi Berritzenen hausnarketa estrategikoa. 2021. urtean zehar ere Azkoitia Herrilab +700 HERRI DIAGNOSIA egitasmoa garatu zen. Herri mailako diagnostiko partekatua osatu zen, egungo egoeraren begirada konpartitua ahalbidetu zuena. Orain, hurrengo urratsari ekiteko unea iritsi da: txosten honek Herri Plana definitzea du helburu. Hala, datozen urteetan gauzatuko diren herri proiektu edo ahaleginak zein diren zehazten du.

Herri Plana sortzeko prozesu honetan, Azkoitia osatzen duten herritarrak, eragile sozialak zein udal barruko egiturek parte hartu dute. Izan ere, prozesuak herri mailako ikuspegi bateratua eratu eta jasotzea izan du helburu, erronka komunei elkarrekin ekiteko. Horretarako, Herri Plana osatzeko, lehenik eta behin zirriborro bat sortu zen, eta berau kontrastatu eta osatu da udal barruko egiturekin zein herritar talde eta norbanakoek egindako ekarpenen bitartez.

Proposamen hau hiru lan ildoren arabera ardaztu da: herri identitatea, iraunkortasuna eta ongizatea. Elkarri lotutako zenbait ekintza kokatzen dira lan ildo bakoitzaren baitan. Ekintza hauek galdetegi bidez jaso dira: online, telefonoz eta paperez. Ondoren, ausaz hautatutako herritarrez osatutako Herri Kontseilu batek ekintza hauen artean zenbait lehenetsi ditu. Ekintzak berrantolatu eta zehaztasunez deskribatu dira. Gero, kronograma baten bitartez, ekintzak denboran antolatu dira. Azkenik, administrazio mailan ekintzek eskatuko duten lankidetza adierazten duen taula definitu da Udaleko sail ezberdinak aintzat hartuz eta hauen arteko lankidetzak seinalatuz. Hala, honako txostena aurkeztu da Batzar Ireki baten bidez eta honen balorazioa jaso da.

Lehenetsi ez diren ekintzak ez dira inolaz ere ezabatu; Herri Planaren eranskinean aurki daitezke prozesuan zehar jaso diren proposamen guztiak. Proposamen hauek ere jasoko ditu Herri Planak eta ideia osagarri moduan aintzat hartuko dira honako mailetan: lehenetsitako ekintzen osagarri moduan, udal jarduerak gai horien baitan lantzen duenaren osagarri moduan, eta etorkizuneko udal jardueraren planifikazioan. Beraz, Herri Kontseiluan adostasuna lortu duten ekintzak izango dira Herri Plan honetan modu sakonean garatuko direnak.

# LAN ILDOAK

## HERRI IDENTITATEA



Herri bat eraikitzeko bidean, bertako balioak oinarri sendoa dira. Horregatik, Herri Plan honetako lehenengo lan ildoa azkoitiarrentzat garrantzitsuak diren ezaugarriek osatzen dute. Azkoitia Herrilab +700: Herri Diagnosiaren arabera, herri kohesionatuta da Azkoitia, giroa atsegina eta segurua da eta herritarren arteko gertutasunak eta elkarrekiko ezagutzak komunitate izaera ematen dio herriari. Horretan sakontzen jarraitzeko, Herri Plan honek **partaidetzan oinarritutako herri egitura misto bat eratzea** proposatzen du, herritarrak, herriko eragile ezberdinak eta udala elkarlanean aritzeko. Egitura honek herri batzarra eta auzo kontseiluak bezalako foroak izango ditu oinarri eta hainbat esparrutan jarriko du arreta datozen urteotan; hala nola, euskaran, kulturan, ingurumenean zein herriaren antolakuntzan. Egitura hau, gainera, aurrerago aurkezten diren zenbait azpiegituren eta egitasmo hezitzaileen bitartez solidotuko da, parekidetasuna ardatz izango duelarik.

## HERRI IRAUNKOR ETA ARDURATSUA



Iraunkortasuna pertsona guztien eta planetaren bizitza osasuntsua bermatzen duen pentsatzeko, antolatzeko eta ekiteko modua da. Mende honetako erronka nagusietako bat da, bai klima aldaketaren aurrean planetaren etorkizuna babesteko, eta baita etorkizunean bideragarria izango den aukera ekonomikoa garatzeko ere. Erronka global honek, gainera, toki mailako konpromisoak eta neurriak behar ditu. Horretarako, Herri Plan honetan Azkoitiko **energia** beharrak asetuko dituzten ekoizpen propioa garatzeko egitasmoak martxan jartzea da helburua. **Hondakinen kudeaketa**ri dagokionez, sortutako zabor kopurua murrizteko maila ezberdinetan eragiteko helburua du herri plan honek. Azkenik, **trantsizio ekonomikoarekin**, Azkoitiko ekonomia arduratsu eta iraunkorra ahalbidetuko duen eraldaketa prozesua burutu nahi da, tokiko baliabideak eta potentziala balioan jarriz eta erabiliz.

## ONGIZATEA



Azkoitiak bizitzeko toki aproposa izaten jarraitu dezan, guztiontzako osasuna, bizi kalitatea eta duintasuna bermatzea ezinbestekoa da, hau da, ongizatea bermatzea. Horretarako, zenbait helburu proposatzen dira herri plan honetan. Lehenik eta behin, kontutan hartu beharra dago denok ditugula zaintza beharrak. Behar hauek, gainera, garaiaren eta egoeraren arabera aldatuz doaz. Horregatik, Azkoitiko pertsona guztien ongizatea bermatu ahal izateko, erantzunkidetasunetik, **zaintza** eredu propioa landu eta egikaritzea ezinbestekoa da. Bestalde, kalitatezko **enplegua** pertsonen ongizatea bermatzeko gako izanik, eta herri iraunkorra helburu, egungo gizarte erronkei erantzungo dieten kalitatezko aukerak sustatu nahi dira lan munduan. Gainera, guztiok dugun **etxebizitza** beharra erronka garrantzitsua bilakatu da azkenaldian. Guztiontzako Azkoitia baten alde, eta herri bezala erronka honi aurre egiteko, etxebizitza eskubide moduan balioan jarri nahi da, espekulazio eskematik at eta etxe hutsen aurrean sentsibilizatuz. Amaitzeko, pertsona eta harreman osasuntsuek eratutako herria helburu duen **kirol** eskaintza bideratzea proposatzen da, emakumeengan, neska nerabeengan eta adineko pertsonengan arreta berezia jarriz.

# HELBURUAK

## Herri identitatea

**Herri egitura.** Partaidetzan oinarritutako herri egitura misto bat eratzea

**Azpiegiturak.** Herri egitura mistoaren antolakuntza ahalbidetuko duten azpiegiturak garatzea

**Hezkuntza**. Azkoitiko herritarrak balioetan eta kohesioan sentsibilizatzea

**Parekidetasuna**. Gizon eta emakumeen arteko desberdinkeria ezabatzea eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak bultzatzea.

## Herri iraunkor eta arduratsua

**Hondakinen kudeaketa.** Sortutako zabor kopurua murrizteko maila ezberdinetan eragitea.

**Energia**. Azkoitiko energia beharrak asetuko dituzten ekoizpen propioa garatzeko egitasmoak martxan jartzea.

**Trantsizio ekonomikoa**. Azkoitiko ekonomia arduratsu eta iraunkorra ahalbidetuko duen eraldaketa prozesua burutzea, tokiko baliabideak eta potentziala balioan jarriz eta erabiliz.

## Ongizatea

**Zaintza**. Erantzunkidetasunetik, herri gisa Azkoitirako baliagarria izango den zaintza eredu propioa landu eta egikaritzea.

**Enplegua**. Egungo gizarte erronkei erantzungo dieten kalitatezko enplegu aukerak garatzea.

**Etxebizitza**. Etxebizitza eskubide moduan balioan jartzea espekulazio eskematik at eta etxe hutsen aurrean sentsibilizatuz.

**Kirola**. Pertsona eta haien arteko harreman osasuntsuak sustatuko dituen kirol eskaintza bideratzea, emakumeengan, neska nerabeengan eta adineko pertsonengan arreta berezia jarriz

# HERRI KONTSEILUAK LEHENETSITAKO EKINTZAK

| LAN ILDOAK | HERRI IDENTITATEA | | | | HERRI IRAUNKOR ETA ARDURATSUA | | | ONGIZATEA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUAK / EKINTZAK | 1. HERRI EGITURA | 2. AZPIEGITURAK | 4. HEZKUNTZA | 5. PAREKIDE-TASUNA | 6. HONDAKINEN KUDEAKETA | 7. ENERGIA | 8. TRANTSIZIO EKONOMIKOA | 9. ZAINTZA | 10. ENPLEGUA | 11. ETXEBIZITZA | 12. KIROLA |
| 1. Herri Batzarraren eta Auzo Kontseiluen bitartez udalaren, eragileen eta herritarren arteko antolakuntza egituratzea | | | | | | | | | | | |
| 2. Azkoitiko kultur dinamika kudeatu eta hauspotuko duen kultur elkarte edo kooperatiba sortzea, zeinak egitasmoak burutzeko espazio egokia kudeatu ahal izango duen | | | | | | | | | | | |
| 3. Euskara mahaia indartu eta euskararen planifikazioa diseinatzea, epe luzera begira euskararen etxea sortzeko aukera aintzat hartuz | | | | | | | | | | | |
| 4. Auzo kontseiluen bitartez, Udalaren eta herritarren arteko komunikazio bideak zabaltzea, auzo kontseiluen bitartezko topaketa periodikoekin eta herriaren berri izateko podcast bidezko herriko irratia martxan jarriz | | | | | | | | | | | |
| 5. Ingurumen foroa martxan jartzea | | | | | | | | | | | |
| 6. Herriaren eskura jartzeko Santa Klara Komentua eskuratzea | | | | | | | | | | | |
| 7. Heriotza erritualentzako erlijio anitzei begirako espazioak erraztea | | | | | | | | | | | |
| 8. Azkoitia Herri Hezitzaile sarera batzea | | | | | | | | | | | |
| 9. Egungo indarkeria kasuen analisia abiapuntutzat hartuz, indarkeria mota ezberdinei aurre egiteko neurriak hartzea, tratu onak helburu | | | | | | | | | | | |
| 10. Gehiegizko bilgarri eta zaborrarekin amaitzeko egitasmoak martxan jartzea | | | | | | | | | | | |
| 11. Energia ekoizpen eta kontsumo ohiturak eraldatzeko egitasmoak diseinatu eta martxan jartzea | | | | | | | | | | | |
| 12. Bertako merkataritza, enpresa txikiak eta herriko lokalak hauspotzeko lanketa egitea | | | | | | | | | | | |
| 13. Zaintza ereduaren inguruko hausnarketa integrala burutzea | | | | | | | | | | | |
| 14. Enplegu aukerak errazteko jarduera ekonomikorako hazitegiak sortzea, tokiko enpresekin elkarlanean mintegiak antolatu, ideia laborategiak sustatu eta saretzeko topaguneak erraztuz | | | | | | | | | | | |
| 15. Etxe hutsen mapeoa egitea, hauek alokairuan jarri edo bestelako irteera bat emateko | | | | | | | | | | | |
| 16. Kirol jarduerak sustatzea, neska gazteen parte hartzea bultzatu eta kirol eskaintza anitzagoa eskainiz | | | | | | | | | | | |

# HERRI KONTSEILUAK LEHENETSITAKO EKINTZAK GARATUTA

## HERRI IDENTITATEA

<table>
<tr><td>HELBURUA</td><td colspan="6">HERRI EGITURA. Partaidetzan oinarritutako herri egitura misto bat eratzea</td></tr>
<tr><td>EKINTZA</td><td colspan="6">1. Herri Batzarraren eta Auzo Kontseiluen bitartez udalaren, eragileen eta herritarren arteko antolakuntza egituratzea</td></tr>
<tr><td>DESKRIBAPENA</td><td colspan="6">Alde batetik, herritarren pentsamendu eta nahi desberdinak batzen dituen proiektu sozial bateratzailea izango den herri batzar bat antolatuko da. Aldi berean, auzo kontseiluen bitartez, auzoen eta udalaren arteko hartu-eman zuzena bermatuko da. Egitura hau Udalak hartu beharreko erabaki garrantzitsuak kontrastatzeko gunea izango da, Udalaren nondik norakoak gardentasunez aurkeztu, herritarrak entzun eta haien parte hartzeko konpromisoa sustatzeko. Era berean, tokian tokiko behar espezifikoak identifikatu eta irtenbideak egikaritzeko tresna baliagarria izango dira auzo kontseiluak; esaterako, hirigintza arloan, hirigintzako langileak aldiro bizilagunekin elkartu eta zein konponketa egin behar diren antzemango dute.</td></tr>
<tr><td>HARTZAILE NAGUSIAK</td><td>ARDURADUNA(K)</td><td>PARTAIDEAK</td><td>SASOIA</td><td>LEKUA</td><td>ADIERAZLEA(K)</td><td>EGOERA</td></tr>
<tr><td>Azkoitiko herritarrak, orokorrean</td><td>• Azkoitiko udaleko Komunikazio Saila</td><td>• Herritarrak<br>• Herriko eragileak<br>• Udaleko sailak</td><td>2023ko urtarriletik hasita</td><td>-</td><td>• Egindako batzar kopurua<br>• Parte hartzaile kopurua</td><td>BERRIA</td></tr>
</table>

Herri egitura honen baitan, gai ezberdinei lotutako egitasmoak proposatzen dira:

<table>
<tr><td>PLANAREN HELBURUA</td><td colspan="6">HERRI EGITURA. Partaidetzan oinarritutako herri egitura misto bat eratzea</td></tr>
<tr><td>EKINTZA</td><td colspan="6">2. Azkoitiko kultur dinamika kudeatu eta hauspotuko duen kultur elkarte edo kooperatiba sortzea, zeinak egitasmoak burutzeko espazio egokia kudeatu ahal izango duen</td></tr>
<tr><td>DESKRIBAPENA</td><td colspan="6">Azkoitiko eskaintza kulturala indartu eta kudeatuko duen elkarte edo kooperatiba bat sortuko da. Elkarte edo kooperatiba honek gune fisiko propio bat kudeatu ahal izango du, azpiegitura zehatza behar duten kultur eta aisialdi ekintzak burutzeko aukera emango duena.</td></tr>
<tr><td>HARTZAILE NAGUSIAK</td><td>ARDURADUNA(K)</td><td>PARTAIDEAK</td><td>SASOIA</td><td>LEKUA</td><td>ADIERAZLEA(K)</td><td>EGOERA</td></tr>
<tr><td>Azkoitiko herritarrak, orokorrean</td><td>• Azkoitiko Udaleko Kultur Saila</td><td>• Azkoitiko Udala<br>• Herriko kultur eragileak<br>• Herriko sortzaileak</td><td>2023an hasita</td><td>Azkoitiko erdigunean</td><td>• Kooperatiba edo elkartearen sorrera juridikoa<br>• Taldean parte hartzen duten herritar/eragile kopurua<br>• Taldeak sustatzen eta antolatzen dituen kultur eta aisialdi ekintza kopurua<br>• Kafe Antzoki batek behar dituen azpiegituraz hornitutako aretoa edukitzea</td><td>BERRIA</td></tr>
</table>

| PLANAREN HELBURUA | HERRI EGITURA. Partaidetzan oinarritutako herri egitura misto bat eratzea | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **3. Euskara mahaia indartu eta euskararen planifikazioa diseinatzea, epe luzera begira euskararen etxea sortzeko aukera aintzat hartuz** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Euskarari gune egonkor eta indartsua ematea, bai antolakuntza aldetik eta baita fisikoki ere. Horretarako, dagoeneko existitzen den euskara mahaia indartuko da, planifikazio egoki eta adostu bat diseinatu dezan. Plangintza horretan, epe luzera begira, aukera egongo da euskararentzako etxe erreferentziala sortzeko, erakargarria eta bizia izango dena. | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak, orokorrean | • Azkoitiko Udaleko Euskara Saila | • Azkoitiko Udala<br>• AEK<br>• Maxixatzen<br>• Irratia | 2023an hasita | Zehazteke | • Euskara hutsean dinamizatuko den espazio fisikoa egotea<br>• Gune horretan egiten den programazioa<br>• Gunera hurbiltzen den jende kopurua eta maiztasuna | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | HERRI EGITURA. Partaidetzan oinarritutako herri egitura misto bat eratzea | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **4. Auzo kontseiluen bitartez, Udalaren eta herritarren arteko komunikazio bideak zabaltzea, auzo kontseiluen bitartezko topaketa periodikoekin eta herriaren berri izateko podcast bidezko herriko irratia martxan jarriz** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Alde batetik, auzo kontseiluak baliatuz, Udala maiztasun batekin auzoetara hurbilduko da egiten ari den lanaren berri emateko eta herritarrekin kontrastatzeko. Bestalde, herriko komunikabideekin elkarlanean, herriaren berri izateko podcast-ak grabatu eta argitaratuko dira. | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak, orokorrean | • Azkoitiko Udaleko Komunikazio Saila | • Azkoitiko Udala<br>• Maxixatzen<br>• Irratia | 2024 | Udalaren webgunea, Maxixatzen, irratia | • Grabatutako podcast kopurua<br>• Podcast-ek izandako erreprodukzio kopurua | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | HERRI EGITURA. Partaidetzan oinarritutako herri egitura misto bat eratzea | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **5. Ingurumen foroa martxan jartzea** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Ikuspegi anitzak batuko dituen foro iraunkorra sortuko da, politikari eta teknikariez gain, herritarrez osatua. Foroaren eginbeharren artean dagoeneko idatzia dagoen ingurumen planaren exekuzioaren jarraipena burutzea legoke eta baita honako herri planak ingurumenari lotuta proposatutako ekintzena ere. Hala, krisi eko-sozialari herri moduan aurre egiteko koordinazio eta erabaki gune bat garatuko da. | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak, orokorrean | • Azkoitiko Udaleko Ingurumen Saila | •Azkoitiko Udala<br>•Herriko eragileak<br>•Ikastetxeak | 2022ko irailetik aurrera | Udaletxean | • Herritarren parte hartzea foroan<br>• Egindako bilera kopurua<br>• Martxan jarritako egitasmo kopurua | MARTXAN |

| PLANAREN HELBURUA | AZPIEGITURAK. Herri egitura mistoaren antolakuntza ahalbidetuko duten azpiegiturak garatzea | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **6. Herriaren eskura jartzeko Santa Klara Komentua eskuratzea** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Udalak Santa Klara komentua eskuratzeko saiakera egingo du moja Klarisekin harremanetan jarriz. Elizarekin negoziatuz lortuko da. Kultur ondare den heinean, kultur-gune bat sortu ahalko litzateke bertan: museoa, erakusketak, sortzaileentzako guneak, artxiboa, gune interaktiboak, etab. | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak, orokorrean | • Azkoitiko Udaleko zerbitzu juridikoak | • Azkoitiko Udala<br>• Herriko kultur elkarte edo kooperatiba<br>• Moja Klarisak | 2023-2024 | Santa Klara komentua | • Komentua udalaren jabetzakoa izatea<br>• Bertan bideratzen den kultur egitasmo kopurua | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | AZPIEGITURAK. Herri egitura mistoaren antolakuntza ahalbidetuko duten azpiegiturak garatzea | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **7. Heriotza erritualentzako erlijio anitzei begirako espazioak erraztea** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Herriko aniztasuna kontutan izanik, heriotza erritualak ere askotarikoak dira gaur egun. Horregatik, erlijio ezberdinek dituzten ohiturak aintzat hartu eta horiek garatu ahal izateko gunean bideratuko dira. | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Erlijio ezberdinetako jarraitzaileak | • Azkoitiko Udaleko Obrak eta Zerbitzuak | • Azkoitiko Udala<br>• Herriko erlijio talde ezberdinak | 2025 | - | • Heriotza erritual ezberdinentzako espazio bat egotea | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | HEZKUNTZA. Azkoitiko herritarrak balioetan eta kohesioan sentsibilizatzea | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **8. Azkoitia herri hezitzaile sarera batzea** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Azkoitia herri hezitzaile sarera batu. Hala, haurrak erdigunean izango dituzten inguruak eta ekintzak sortuko dira: parke hezitzaileak eta ez baztertzaileak, jolas aktiborako eremuak, ekintza inklusiboak, eta abar. Azken batean, Azkoitia familientzako eta, bereziki, haurrentzako atsegina eta hezitzailea den gune bilakatzea izango da ekintza honen erronka. | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko familiak | • Azkoitiko Udaleko Gazteria Saila | • Azkoitiko Udala<br>• Herriko elkarteak<br>• Aisialdi enpresak | Maiatza-Urria bitartean | Kalean | • Familiei zuzenduta, kalean antolatzen den ekintza kopurua<br>• Antolatutako ekintzetan parte hartu duen haur/familia kopurua<br>• Herri hezitzaile sarera batu izana | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | PAREKIDETASUNA. Gizon eta emakumeen arteko desberdinkeria ezabatzea eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak bultzatzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **9. Egungo indarkeria kasuen analisia abiapuntutzat hartuz, indarkeria mota ezberdinei aurre egiteko neurriak hartzea, tratu onak helburu.** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Gaur egun genero indarkeriari aurre egiteko protokoloa existitzen da. Honek funtzio garrantzitsua betetzen du baina badaude beste indarkeria mota batzuk ere. Horregatik, garrantzitsua da indarkeria mota bakoitzarentzako erantzun espezifikoak emango dituen protokoloa garatzea. Aurretik identifikatutako kasuetatik abiatuz, egoera horiei modu egokian erantzuteko dagoeneko erabilgarri dauden baliabideak aintzat hartu eta behar diren berriak garatuko dira. Kasuak identifikatzeko, Azkoitiako indarkeria kasuak erregistratu eta kasu bakoitzaren analisia egingo da, indarkeria mota ezberdinak bereizten lagunduko duen diagnostikoa sortzeko. Hala, indarkeria mota bakoitza jasan izanak eragiten dituen beharrak identifikatuko dira eta tratu onak bidelagun, egoera horiei aurre egiteko moduak zehaztuko dira. | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Emakumeak | • Azkoitiko Udaleko Berdintasun Saila | • Azkoitiko Udala | 2023-2024 | Elkargunean | • Diagnostikoa egin izana<br>• Aztertutako kasu kopurua<br>• Lortutako emaitzak<br>• Protokolo berria egin izana | BERRIA |

# HERRI IRAUNKOR ETA ARDURATSUA

<table>
<tr><td>PLANAREN HELBURUA</td><td colspan="6">HONDAKINEN KUDEAKETA. Sortutako zabor kopurua murrizteko maila ezberdinetan eragitea.</td></tr>
<tr><td>EKINTZA</td><td colspan="6">10. Gehiegizko bilgarri eta zaborrarekin amaitzeko egitasmoak martxan jartzea</td></tr>
<tr><td>DESKRIBAPENA</td><td colspan="6">Kaleetan sortzen den zabor kopuruaren parte handi bat jaki eta edariekin batera tabernetan, dendetan edo janari azkarreko guneetan ematen diren plastiko eta paperei dagokie. Horregatik, garrantzitsua da, herritarren kontzientziaz haratago, bilgarri hauek ematen dituztenak ere sentsibilizatzea. Hala, ematen dituzten bilgarriak hein handi batean ondoren zaborra bilakatuko direnez, hauek murriztuz, sortutako hondakinak ere murriztuko dira. Gainera, bilgarriak murrizteko lanketa egiten duten establezimenduei aitorpen bat egiteko aukera aztertuko da.<br><br>Bestalde, birziklapenerako sailkatzetik haratago, zaborra murriztearen eta herria garbi mantentzearen garrantziaz ohartaraziko zaie herritarrei. Horretarako sentsibilizazio kanpaina bat garatuko da, bereziki gazteentzako gune erreferentzialetan: hala nola, ikastetxeetan eta baita kirol, musika edo antzerki taldeak bezalako eremu informalagoetan. Etxeetan eta etxeetatik eragitea ere garrantzitsua izango da. Gazteekin lanketa berezia egingo bada ere, herritarrei zuzendutakoa izango da sentsibilizazio kanpaina, bere osotasunean.</td></tr>
<tr><td>HARTZAILE NAGUSIAK</td><td>ARDURADUNA(K)</td><td>PARTAIDEAK</td><td>SASOIA</td><td>LEKUA</td><td>ADIERAZLEA(K)</td><td>EGOERA</td></tr>
<tr><td>Azkoitiko tabernariak, dendariak eta herritarrak, orokorrean</td><td>• Azkoitiko Udaleko Ingurumen Saila</td><td>• Azkoitiko Udala<br>• Herrixen<br>• Azkoitiko tabernarien elkartea<br>• Ikastetxeak<br>• Kirol/kultur elkarteak</td><td>2024</td><td>Herrian zehar</td><td>• Sentsibilizazio kanpaina honetarako burututako jarduera kopurua<br>• Komertzio eta ostalaritza guneetan ematen diren poltsa edo bilgarrien murrizketa<br>• Irizpideak betetzeagatik aitorpena lortutako establezimendu kopurua</td><td>BERRIA</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>PLANAREN HELBURUA</td><td colspan="6">ENERGIA. Azkoitiko energia beharrak asetuko dituzten ekoizpen propioa garatzeko egitasmoak martxan jartzea.</td></tr>
<tr><td>EKINTZA</td><td colspan="6">11. Energia ekoizpen eta kontsumo ohiturak eraldatzeko egitasmoak diseinatu eta martxan jartzea</td></tr>
<tr><td>DESKRIBAPENA</td><td colspan="6">Alde batetik, Azkoitiko behar eta aukera energetikoak kontutan hartuz, herri mailan garatu daitekeen ereduaz hausnartu eta datozen urteetara begirako plan bat diseinatuko da. Honela, energia berriztagarrietan oinarritutako sorkuntza ardatz izanik, herrian eman beharreko pausoak zehaztuko dira. Hausnarketa eta erabakitze prozesu hau Ingurumen Foroaren bitartez egikarituko da, Udalaz gain herriko eragile ezberdinek ere parte har dezaten. Gainera, beste herrietan garatutako proiektu energetikoak aztertuko dira ideia ezberdinak ezagutzeko. Auzoz auzo energia taldeak sustatzeko aukera aztertuko da, panel fotovoltaikoak jarri eta energia auto-ekoizpen eta auto-kontsumoa garatzeko.<br>Aldi berean, herritarrei zuzendutako informazioa eta aholkularitza eskainiko da, auto-kontsumorako energia ekoizteko aukerak eta energia gutxiago kontsumitzeko bideak azaltzeko.</td></tr>
<tr><td>HARTZAILE NAGUSIAK</td><td>ARDURADUNA(K)</td><td>PARTAIDEAK</td><td>SASOIA</td><td>LEKUA</td><td>ADIERAZLEA(K)</td><td>EGOERA</td></tr>
<tr><td>Azkoitiko herritarrak</td><td>• Azkoitiko Udaleko Ingurumen Saila</td><td>• Azkoitiko Udala<br>• Auzo-elkarteak</td><td>2024, 2025</td><td>Auzoka</td><td>• Egindako saio informatibo kopurua<br>• Jarritako panel kopurua<br>• Sortutako energia komunitate kopurua<br>• Energia komunitate bakoitzak hornitutako etxebizitza kopurua</td><td>BERRIA</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>PLANAREN HELBURUA</td><td colspan="6">TRANTSIZIO EKONOMIKOA. Azkoitiko ekonomia arduratsu eta iraunkorra ahalbidetuko duen eraldaketa prozesua burutzea, tokiko baliabideak eta potentziala balioan jarriz eta erabiliz.</td></tr>
<tr><td>EKINTZA</td><td colspan="6">12. Bertako merkataritza, enpresa txikiak eta lokalak hauspotzeko lanketa egitea</td></tr>
<tr><td>DESKRIBAPENA</td><td colspan="6">Merkatu globalaren arriskuez zein bertako produktuen eta merkatarien balioaren inguruko lanketa egiteko kanpaina bat abiatuko da. Dagoeneko egiten den arren, ideia eta formatu berrietan pentsatzeko ariketa egitea garrantzitsua da. Gainera, merkatariei erraztasunak emango zaizkie negozioak aurrera atera ahal izateko. Azkenik, lokal hutsen jabeekin elkarrizketa prozesu bat zabalduko da herriko merkatari eta enpresa txikiekin akordioetara iristen saiatzeko.</td></tr>
<tr><td>HARTZAILE NAGUSIAK</td><td>ARDURADUNA(K)</td><td>PARTAIDEAK</td><td>SASOIA</td><td>LEKUA</td><td>ADIERAZLEA(K)</td><td>EGOERA</td></tr>
<tr><td>Azkoitiko herritarrak</td><td>• Iraurgi Berritzen<br>• Herrixen</td><td>• Azkoitiko Udala<br>• Herrixen<br>• Lokal hutsen jabeak</td><td>2023, 2024</td><td>-</td><td>• Bertako merkataritzaren salmenta igoera<br>• Herritarrek bertakoari ematen dioten garrantzia subjektiboa handitu izana</td><td>BERRIA</td></tr>
</table>

# ONGIZATEA

| PLANAREN HELBURUA | ZAINTZA. Erantzunkidetasunetik, herri gisa Azkoitirako baliagarria izango den zaintza eredu propioa landu eta egikaritzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **13. Zaintza ereduaren inguruko hausnarketa integrala burutzea** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Egungo beharrei aurre egiteko baliagarria izango den zaintza eredu bat beharrezkoa da. Zehazki, Azkoitiko herritarren beharretara egokitua egongo den eredua lantzeko, lehenik eta behin beharren mapa bat egingo da. Identifikatutako beharretatik abiatuz, behar horiei aurre egiteko aukera ezberdinak proposatu eta baloratuko dira hausnarketa prozesu honen bitartez. Besteak beste, etxebizitza tutelatuek, eguneko zentroek, egoitzak, aisialdi taldeek edo eskolaz kanpoko ekintzek bete beharko luketen funtzioaz hausnartuko da; baita hauen kudeaketa nola bideratu beharko litzatekeen eta herriko instituzio eta eragile ezberdinek eredu honetan zein eginkizun luketen ere. | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herria, bere osotasunean | • Azkoitiko Udaleko Gizarte Ongizate Saila | • Azkoitiko Udala<br>• Egoitza Kalera<br>• Egoitzako Senideak<br>• Gurasoak<br>• Ikastetxeak<br>• Marea Urdina | 2023an hasita | Elkargunea | • Azkoitiko zaintza mapa<br>• Identifikatutako beharrei aurre egiteko proposamenak | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | ENPLEGUA. Egungo gizarte erronkei erantzungo dieten kalitatezko enplegu aukerak garatzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **14. Enplegu aukerak errazteko jarduera ekonomikorako hazitegiak sortzea, tokiko enpresekin elkarlanean mintegiak antolatu, ideia laborategiak sustatu eta saretzeko topaguneak erraztuz** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Arrazoi ezberdinengatik lan munduan berriak direnentzat enplegu aukerak erraztuko ditu egitasmo honek. Alde batetik, inguruko enpresekin elkarlanean, topaketak eta mintegiak antolatuko dira. Bestalde, jarduera ekonomikoen hazitegiak sortuko dira, maila profesionalean egikaritu nahiko liratekeen ideiak garatzen laguntzeko. | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Herritarrak, orokorrean | • Iraurgi Berritzen | • Azkoitiko Udala<br>• Inguruko enpresak<br>• Lan esperientzia gutxiko langileak | 2024tik aurrera | Elkargunean | • Hazitegietan parte hartutako kide/proiektu kopurua<br>• Antolatutako mintegi kopurua<br>• Hazitegietatik pasa eta 3 urtera martxan jarraitzen duen proiektu kopurua | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | ETXEBIZITZA. Etxebizitza eskubide moduan balioan jartzea espekulazio eskematik at eta etxe hutsen aurrean sentsibilizatuz. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **15. Etxe hutsen mapeoa egitea, hauek alokairuan jarri edo bestelako irteera bat emateko** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Etxe hutsen mapeoa egingo da zenbat, zein egoeratan, non kokatuta dauden, etab. jakiteko. Ondoren, etxe hutsen jabeei zuzendutako kanpaina egingo da, hauek alokairuan jartzeko aukerak aztertzeko:<br>• Alokabideko Bizigune programaren inguruko informazioa: jabeak eta maizterrak babesa izango duten sistema, Eusko Jaurlaritzak bitartekari lanak eginez<br>• Alokabiden alokairuan jartzeko etxebizitzak eraberritzerako diru-laguntzen inguruko informazioa.<br>• Etxeei erabilpena ematearen garrantzia azpimarratu<br>Azkenik, bankuen jabetzazko etxebizitzei ere irteera bat emateko lanketa egingo da. | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Etxebizitzen jabe eta maizterrak | • Azkoitia Lantzen | • Azkoitia Lantzen | 2023 | Herri osoan zehar | • Identifikatutako etxe huts kopurua eta haien ezaugarriak<br>• Mapeoa egitea<br>• Alokabideko Bizigune programara atxikitako etxebizitza kopuruaren aldaketa<br>• Eraberritutako etxebizitza huts kopurua<br>• Kontaktaziorako egindako kanpaina kopurua<br>• Kontaktatutako etxebizitza jabe kopurua<br>• Jasotako erantzunen tipologia | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | KIROLA. Pertsona eta haien arteko harreman osasuntsuak sustatuko dituen kirol eskaintza bideratzea, emakumeengan, neska nerabeengan eta adineko pertsonengan arreta berezia jarriz. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **16. Kirol jarduerak sustatzea, neska gazteen parte hartzea bultzatu eta kirol eskaintza anitzagoa eskainiz** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Herrian kirol ezberdinak egiteko aukerak errazteko kanpainak egitea. Bereziki neska gazteen parte hartzea sustatzeko proposamenak egingo dira. | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak, bereziki neska gazteak | • Azkoitiko Udaleko Kirol Saila | • Herriko kirol taldeak<br>• Elkargunea | Ikasturte hasieretan | - | • Herriko kirol taldeetako neska gazte kopurua<br>• Elkarguneko erabiltzaile kopurua (bereziki neska gazteak) | BERRIA |

# ADOSTASUN MAILA BAXUAREKIN HERRI KONTSEILUAK LEHENETSITAKO EKINTZAK

Honako ekintzak adostasun maila baxuarekin lehenetsi zituen Herri Kontseilua osatu zuten herritarrek. Horregatik, beste maila batean jasota geratu dira. Ekintza hauetako batzuk lehenetsitako ekintzak elikatzeko baliagarriak izango dira. Beste batzuk udalak dagoeneko martxan dituen egitasmoak aberasteko baliatuko dira. Azkenik, oso berriak diren horiek aurrera begirako proposamenak garatzerako orduan kontutan izateko jasoko dira.

| LAN ILDOAK | HERRI IDENTITATEA | | | | | HERRI IRAUNKOR ETA ARDURATSUA | | | | | | ONGIZATEA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUAK / EKINTZAK | 1. EUSKARA | 2. KULTURA | 3. ANIZTASUNA | 4. PAREKIDETASUNA | 5. PARTAIDETZA | 6. ENERGIA | 7. MUGIKORTASUNA | 8. IRISGARRITASUNA | 9. HONDAKINAK | 10. NATURA | 11. TRANTSIZIO EKONOMIKOA | 12. ZAINTZA | 13. ENPLEGUA | 14. ETXEBIZITZA | 15. KIROLA |
| 1. Euskara ikasteko laguntzak eskaintzea denontzat (martxan) | | | | | | | | | | | | | | | |
| 2. Haur eta nerabeentzako hizkuntza eta eskola errefortzua eskaintzea | | | | | | | | | | | | | | | |
| 3. Gazteen parte hartzea sustatzeko ekintzak burutzea | | | | | | | | | | | | | | | |
| 4. Azkoitiko energia berdea: herriaren kontsumorako energia propioa ekoiztea | | | | | | | | | | | | | | | |
| 5. Bir-ziklatu: Bizikleta zaharrak berritu eta berrerabiltzeko egitasmoa martxan jartzea | | | | | | | | | | | | | | | |
| 6. Eraikin publikoak irisgarri bihurtzea | | | | | | | | | | | | | | | |
| 7. Azkoitiko eremu berdeen planifikazioa: Trenbide parkeari erabilera antolatua ematea, herri inguruko berdeguneak herritarren erabilerarako baliatzea eraztun berde bat osatuz, Izarraitz kooperatiba txukuntzea, etab. | | | | | | | | | | | | | | | |
| 8. Ingurumenaren zaintzarako egiturak osatzea, ingurumenaren kudeaketa planifikatua bermatzeko | | | | | | | | | | | | | | | |
| 9. Baratze guneak sustatzea | | | | | | | | | | | | | | | |
| 10. Animalien zaintza bermatzeko egitasmoak burutzea | | | | | | | | | | | | | | | |
| 11. Elikadura ardatz: Bertako ekoizleen produktuak kontsumitzeko herriko eta inguruko jatetxe zein jantokiekin akordioak sustatzea | | | | | | | | | | | | | | | |
| 12. Lehen sektorearen beharrak era kolektiboan asetzea, prozesu burokratikoak erraztu eta bete beharreko bermeak kolektiboki kudeatzeko | | | | | | | | | | | | | | | |

# KRONOGRAMA

| Ekintza \ Sasoia | 2023 | 2024 | 2025 |
|---|---|---|---|
| 1. Herri Batzarraren eta Auzo Kontseiluen bitartez udalaren, eragileen eta herritarren arteko antolakuntza egituratzea. | X | X | X |
| 2. Azkoitiko kultur dinamika kudeatu eta hauspotuko duen kultur elkarte edo kooperatiba sortzea, zeinak egitasmoak burutzeko espazio egokia kudeatu ahal izango duen | | X | |
| 3. Euskara mahaia indartu eta euskararen planifikazioa diseinatzea, epe luzera begira euskararen etxea sortzeko aukera aintzat hartuz | X | | |
| 4. Auzo kontseiluen bitartez, Udalaren eta herritarren arteko komunikazio bideak zabaltzea, auzo kontseiluen bitartezko topaketa periodikoekin eta herriaren berri izateko podcast bidezko herriko irratia martxan jarriz | X | X | X |
| 5. Ingurumen foroa martxan jartzea | X | | |
| 6. Herriaren eskura jartzeko Santa Klara Komentua eskuratzea | | | X |
| 7. Heriotza erritualentzako erlijio anitzei begirako espazioak erraztea | | X | |
| 8. Azkoitia herri hezitzaile sarera batzea | X | | |
| 9. Egungo indarkeria kasuen analisia abiapuntutzat hartuz, indarkeria mota ezberdinei aurre egiteko neurriak hartzea, tratu onak helburu. | | X | |
| 10. Gehiegizko bilgarri eta zaborrarekin amaitzeko egitasmoak martxan jartzea | | X | |
| 11. Energia ekoizpen eta kontsumo ohiturak eraldatzeko egitasmoak diseinatu eta martxan jartzea | X | X | X |
| 12. Bertako merkataritza, enpresa txikiak eta lokalak hauspotzeko lanketa egitea | X | | |
| 13. Zaintza ereduaren inguruko hausnarketa integrala burutzea | | X | |
| 14. Enplegu aukerak errazteko jarduera ekonomikorako hazitegiak sortzea, tokiko enpresekin elkarlanean mintegiak antolatu, ideia laborategiak sustatu eta saretzeko topaguneak erraztuz | | | X |
| 15. Etxe hutsen mapeoa egitea, hauek alokairuan jarri edo bestelako irteera bat emateko | X | | |
| 16. Kirol jarduerak sustatzea, neska gazteen parte hartzea bultzatu eta kirol eskaintza anitzagoa eskainiz | | | X |

# LANKIDETZAK ADMINISTRAZIO MAILAN

Administrazio mailan, erronka garrantzitsua izango da Herri Plan honetan proposatutako ekintzak zeharkako ikuspegiarekin lantzea. Horretarako, ezinbestekoa izango da sail ezberdinen arteko lankidetza sustatzea. Erronka izateaz gain, onura nabarmenak ekarriko ditu modu honetan jarduteak. Izan ere, baliabideak bateratzeko eta herritarren beharrei hobeto egokitzeko aukera emango du sailen arteko koordinazioak. Ondorengo taulan, Udaleko sail ezberdinak agertzen dira eta ekintza bakoitzak zein sailen inplikazioa eskatuko duen adierazten da, ekintzaz ekintza.

| Ek. Zk. | ALKATETZA | BERDINTASUNA | EUSKARA | GAZTERIA | GIZARTE ONGIZATEA | HERRITARREN ARRETA | HIRIGINTZA | INGURUMENA | KIROLA | KULTURA | OBRAK ETA ZERBITZUAK | ZERBITZU EKONOMIKOAK | UDALTZAINGOA | ETXEBIZITZA | KOMUNIKAZIOA | ZERBITZU JURIDIKOAK | IRAURGI BERRITZEN |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.* | X | X | X | X | X | X | X | X | X | X | X | X | X | X | **O** | X | X |
| 2. | | | | | | | X | | | **O** | | | | | | X | |
| 3. | | | **O** | | | | | | | | X | | | | X | | |
| 4.* | X | X | X | X | X | X | X | X | X | X | X | X | X | X | **O** | X | X |
| 5. | | | | X | | | | **O** | | | | | | | | | |
| 6. | | | | | | | X | | | | X | X | | | | **O** | |
| 7. | | | | | X | X | | | | | **O** | | | | | X | |
| 8. | | | X | **O** | | | | X | X | X | | | | | X | | X |
| 9. | | **O** | | | X | | | | | | | | X | | | X | |
| 10. | | | | | | X | | **O** | | | | | | | X | | |
| 11. | | | | | | | X | **O** | | | X | | | X | X | | |
| 12. | | | | | | | | | | X | X | X | | | | | **O** |
| 13. | | X | | X | **O** | | | | | | | | | X | | | |
| 14. | | | | X | | | | | | | | | | | | | **O** |
| 15. | | | | | | X | X | | | | | X | X | **O** | X | | |
| 16. | | X | | X | | | | | **O** | | | | | | | | |

**Udal-mailan lidergotza txandakatuko litzateke sail ezberdinen artean.*

# ONDORIOAK

Badira agente ezberdinen artean adostasun maila handia duten ekintza proposamenak; hala nola, herri egitura bat sortzeari, energiari, zaintzari eta etxebizitzari lotutakoak.

Herri identitatearen lan ildotik hasita, **udalaren, herriko eragileen eta herritarren arteko antolakuntza egituratuko duen herri egitura bat sortzeak** onarpen orokorra du. Herritarren beharrei eta eskakizunei hobeto, azkarrago eta era planifikatuago batean erantzuteko tresna egokia izan daiteke; udalak eta herritarrek harreman zuzena izateko aukera zabalduz, elkarlanean hobekuntzak egiteko. Horrez gain, bereziki baliagarria izan daiteke herrigunean ez dauden auzoei ahotsa eman eta dituzten beharrei erantzuteko. Egitura honen nolakotasuna da zehaztu beharrekoa; hau da, izango dituen helburuak, ahalmenak, funtzioak, baliabideak, partaideak eta hauek izendatzeko era, etab. Kezka sortzen du gaur egungo kultura eta bizitza estiloa kontutan hartuta, erreala ote den eta halako proiektu batek eskatzen duen konpromisoa egongo den.

Herri iraunkor eta arduratsuari erreparatuz, **energia ekoizpen eta kontsumo ohiturak eraldatzeko egitasmoak diseinatu eta martxan jartzea** garrantzitsua eta lehentasunezkoa da. Alde batetik, energiaren auziari tokiko irtenbide bat emateko, egun agerikoa den krisi energetikoari egokiago erantzuteko, energia subiranotasuna indartzen delarik. Honi lotuta, kontsumo ohiturak aldatzeko eta kostuak murrizteko beharra azpimarratu da. Honi lotuta, bi alderdik kezka sortzen dute: alde batetik, kontsumo ohiturak aldatzeko herritarren erantzuna zein izango den. Bestetik, gaiaren kudeaketan ahots eta ikuspegi ezberdinak presente egotea eta beste baliabide batzuk urratu gabe egitea bermatuko ote den.

Ongizatearen lan ildoko bi ekintzen inguruko adostasuna nabarmendu da. Batetik, **zaintza ereduaren inguruko hausnarketa integrala burutzea**. Zentzu honetan, zaintza ulertzeko moduak eta zaintza ereduak aldatzen ari direla aintzat hartuta, egun dugun eta etorkizunean izango dugun erronkari erantzuteko errealitatera egokituko den eredu propio bat osotasunean definitzeko aukera ematen du ekintza honek, zerbitzu eta baliabide berriei bide emanez. Zaintzaren inguruko hausnarketa egitean hirugarren adinaren zaintzara mugatzeak kezka sortu du. Horrez gain, hausnarketatik haratago hartzen diren erabakiak egikaritzeko egon daitezkeen zailtasun eta mugek ere zalantza eragin dute.

Bestetik, onarpen zabala du **etxe hutsen mapeoa egiteak, hauek alokairuan jarri edo beste irtenbide bat emateko**. Orokorrean, etxebizitzaren gaiak pisu handia duela somatzen da: alokairuan jartzeko beharra handia dela azpimarratu da, bereziki gazteei, etorkinei eta etxe bat erosi ezin duten kolektiboei dagokionez. Eusko Jaurlaritzako Alokabide eta Bizigune programen bidez pertsonen errentaren arabera alokairu prezioa moldatzeko aukera aintzat hartzekoa da gai honi irtenbidea topatzerakoan. Ekintza honen irismena da zalantza sortzen duena; hau da, mapeo honek ondoren neurriak hartzea ekartzen ez badu, arazoa ez dela konponduko. Horregatik, etxebizitzak alokairuan jartzeko pizgarriak pentsatu behar dira.

# IKUSPEGI EZBERDINETATIK EGINDAKO BALORAZIOA

Herri planaren leheneste hau, beraz, hiru ikuspegi ezberdinetatik landu da. Alde batetik, herritarren ordezkaritza moduan funtzionatu duen **Herri Kontseiluak** aztertu eta lehenetsi ditu aurretik herritar eta eragile ezberdinek proposatutako ekintzak. Ekintza guztiak bat-batean burutu ezin direla onartuta, aurrerapausoak ikusteko beharra agertu dute Herri Kontseilua osatu duten partaideek. Izan ere, hartutako erabakiekin udalak izango duen konpromiso mailarekiko zalantza, baita mesfidantza sentipenak ere agerikoak dira herritarren partetik. Hau da, kezka sortzen du egindako prozesu honen emaitzak zenbateraino bideratuko diren.

Bestalde, **udal langileek** proposamen interesgarriak ikusi dituzte Herri Plan honen baitan, Azkoitiko herriak aurrera egiteko aukerak eskaintzen dituztenak. Baliabideak mugatuak diren heinean, gaitasuna neurtu eta egitasmo ezberdinak burutzeko denboran eta baliabide aldetik ondo antolatzeko beharra nabarmendu dute; baita dagoeneko egiten denaren inguruko azterketa bat egin eta funtzionatzen ez duten egitasmoak moldatu edo bertan behera uzteko, baliabideak optimizatze aldera. Horrez gain, herritarrekin bat eginez, Herri Planarekiko udal ordezkarien konpromiso beharra azpimarratzen dute; erabaki politiko bat hartzeko beharra zein ekintzekin aurrera egingo den zehazteko.

Azkenik, **udal ordezkariek** udal talde ezberdinen arteko adostasunak topatzeko erronkari erreparatu diote; herri ikuspegi batetik aritzeko alderdi ezberdinen lankidetzan oinarritu, Herri Planeko proposamenak elkarrekin aztertu eta maila bateko akordioa lortzea helburu. Horrez gain, baliabideak optimizatzeko, udal langileekin bat eginez, dagoeneko martxan dagoena aztertzeko beharra azpimarratu dute, funtzionatzen ez duten egitasmoak moldatu edo bertan behera uzteko. Azkenik, martxan jartzen diren egitasmoen aurrean herritarrek emango duten erantzunaren inguruko kezka agertu dute; udala sustatzaile izatetik haratago, halako egitasmoak aurrera ateratzeko herritarren parte hartzea, ardura eta konpromisoa beharrezkoa baita. Horregatik, udalaren eta herritarren artean gerturatzeko eta elkar entzuteko topaguneak beharrezkotzat dituzte, elkarrizketa sustatzeko eta lankidetza kultura sortu eta egituratzeari begira.

AZKOITIA Udala

HERRILAB +700 AZKOITIA

[a] aztiker SOZIOLOGIA IKERGUNEA

# AZKOITIA HERRILAB +700:
# HERRI PLANA 2022ren ERANSKINA

# AURKIBIDEA

**PROPOSATUTAKO BESTE EKINTZAK** ........................................ 3

**PROPOSATUTAKO BESTE EKINTZAK GARATUTA** ........................................ 5

# PROPOSATUTAKO BESTE EKINTZAK

Ekintza hauek Herri Plana osatzeko prozesuan zehar jasotako proposamenak dira. Epe laburrean egikaritzeko lehenetsiak izan ez diren arren, Herri Planari erantsitako dokumentuan txertatu dira, ahal den heinean kontutan izateko.

| LAN ILDOAK | HERRI IDENTITATEA | | | | | HERRI IRAUNKOR ETA ARDURATSUA | | | | | | ONGIZATEA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUAK / EKINTZAK | 1. EUSKARA | 2. KULTURA | 3. ANIZTASUNA | 4. PAREKIDETASUNA | 5. PARTAIDETZA | 6. ENERGIA | 7. MUGIKORTASUNA | 8. IRISGARRITASUNA | 9. HONDAKINAK | 10. NATURA | 11. TRANTSIZIO EKONOMIKOA | 12. ZAINTZA | 13. ENPLEGUA | 14. ETXEBIZITZA | 15. KIROLA |
| 1. Azkoitia UEMA kide | ● | | | | ○ | | | | | | | | | | |
| 2. Pantailak euskaraz | ● | | | | | | | | | | | | | | |
| 3. Euskararen ulermena landuz | ● | | ○ | ○ | | | | | | | | | | | |
| 4. Euskara ikasteko prozesuaren egokitzapena | ● | | | | | | | | | | | | | | |
| 5. Administrazioa euskaraz | ● | | | | | | | | | | | | | | |
| 6. Lantokian euskaraz | ● | | | | | | | | | | | | | | |
| 7. Uda musikala | | ● | | | | | | | | | | | | | |
| 8. Kaleon | | ● | | | ○ | | | | | | | | | | |
| 9. Zinema inklusiboa | | ● | | | | | | ○ | | | | | | | |
| 10. Kultura inklusiboa | | ● | | | | | | ○ | | | | | | | |
| 11. Kultur ondarea | | ● | | | | | | | | | | | | | |
| 12. Harrera eta bide laguntza zerbitzua | | | ● | | | | | | | | | | | | |
| 13. Haur eta nerabeentzako aisialdi hurbilpena | ○ | | ● | | | | | | | | | ○ | | | |
| 14. Kultur-aniztasun jaialdia | | | ● | | ○ | | | | | | | | | | |
| 15. Erantzunkidetasuna lantzen | | | | ● | | | | | | | | ○ | | | |
| 16. Ahalduntze prozesuak | | | | ● | | | | | | | | | | | |
| 17. Udal zerbitzuen burokratizazio behatokia | | | | | ● | | | | | | | | | | |
| 18. Oletako haize erroten proiektuari erantzun | | | | | ○ | ● | | | | | | | | | |
| 19. Udalaren ekoizpen energetikoa | | | | | | ● | | | | | | | | | |
| 20. Alde zaharreko trafiko mugaketa | | | | | | | ● | | | | | | | | |
| 21. Auzmendi bideko trafiko erregulazioa | | | | | | | ● | | | | | | | | |
| 22. Erregai garbia | | | | | | | ● | | | | | | | | |
| 23. Garraio jasangarrirantz | | | | | | | ● | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 24. Bizikleta aparkaleku estaliak | | | | | | | | | | | | | | | |
| 25. Bidegorrien argiztatzea | | | | | | | | | | | | | | | |
| 26. Zuazola irisgarri | | | | | | | | | | | | | | | |
| 27. San Martin irisgarri | | | | | | | | | | | | | | | |
| 28. Floreaga irisgarri | | | | | | | | | | | | | | | |
| 29. Plaza berri guztiontzako | | | | | | | | | | | | | | | |
| 30. Konponketa zehatzak | | | | | | | | | | | | | | | |
| 31. Irisgarritasun unibertsalaren mahaia | | | | | | | | | | | | | | | |
| 32. Nik bertakoa | | | | | | | | | | | | | | | |
| 33. Guk bertakoa | | | | | | | | | | | | | | | |
| 34. Azkoitia sarean | | | | | | | | | | | | | | | |
| 35. Zaintza taldea | | | | | | | | | | | | | | | |
| 36. Bitartekaritza | | | | | | | | | | | | | | | |
| 37. Errolda soziala | | | | | | | | | | | | | | | |
| 38. Aisialdi inklusiboa | | | | | | | | | | | | | | | |
| 39. Kontziliazioan sakonduz | | | | | | | | | | | | | | | |
| 40. Lan inklusiboa | | | | | | | | | | | | | | | |
| 41. Alokairurako diru-laguntzen informazio kanpaina | | | | | | | | | | | | | | | |
| 42. Kirol mahaia | | | | | | | | | | | | | | | |
| 43. Herriko kirol taldeak ezagutuz | | | | | | | | | | | | | | | |
| 44. Pump Trak gunea | | | | | | | | | | | | | | | |

# PROPOSATUTAKO BESTE EKINTZAK GARATUTA

## LAN ILDOA: HERRI IDENTITATEA

### EUSKARA

| PLANAREN HELBURUA | EUSKARA. Euskararen ezagutza eta erabilera herriko testuinguru guztietan normaltzea | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Azkoitia UEMA kide** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kide izateko baldintza betetzen dugu, hau da, %70etik gorako euskaldun indizea. Gaur egun, Hego Euskal Herriko 91 udalerrik osatzen dute UEMA eta 266.000 bat biztanle biltzen ditu. Azkoitiak ere zerrendan lekua bete behar du. UEMAko kide izateak herri mailan euskararen normalizaziorako tresna batzuk eskainiko dizkio herriari. Gainera, talde politikoen arteko lankidetza bilatzen du proposamen honek. Mankomunitateak eta hura osatzen duten udalek euskara bizitza publiko eta pribatuaren erdigunean kokatzea dute xede. Honakoa da udal elkartearen printzipio nagusia: Euskarari lehentasuna emango zaio UEMAko udalerrietan; beti ere, herritar ororen hizkuntza ofizialetako hiztunen eskubideak errespetatuz. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Udalerri euskaldunek osatzen duten euskararen arnasgunea saretu eta zaintzea, UEMAk eskaintzen dituen zerbitzuen bidez euskararen presentzia eta erabilera areagotuz hainbat eremutan: merkataritzan, ostalaritzan, hezkuntzan... | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Sentsibilizazioa, legeak sortzea | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herria, bere osotasunean | • Azkoitiko Udala<br>• UEMA | • Azkoitiko Udala<br>• Euskara mahaia<br>• Ikastetxeak<br>• Gazte guneak | 2023an hasita | - | • UEMAko kide bilakatu izana | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | EUSKARA. Euskararen ezagutza eta erabilera herriko testuinguru guztietan normaltzea | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Pantailak euskaraz** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Haur, nerabe eta gazteek haien egunerokoan erabiltzen dituzten baliabide digitalak kontutan hartuta (Youtube, TikTok, Instagram, bideo-jokoak), erabilera askeko euskarazko produktu bat sortzea. Egin nahi den produktu mota eta gaia diseinatzeko haur eta gazteek parte hartuko dute. Horrela, haur eta nerabeekin hezkuntza digitala lantzeko ere aukera emango du ekintza honek. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Euskara haur eta nerabeen testuingurura hurbiltzea. | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Sentsibilizazioa | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Haurrak eta nerabeak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala<br>• IKT enpresa bat<br>• Ikastetxeak | 2024 | Internet | • Produktua egin izana<br>• Produktuaren ezagutza herrian<br>• Produktuaren erabilera herrian | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | EUSKARA. Euskararen ezagutza eta erabilera herriko testuinguru guztietan normaltzea | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Euskararen ulermena landuz** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Emakume etorkinek euskararen ulermen maila garatzeko ikastaroak antolatzea haien beharrei egokituta: ordutegiak, astero eskaini beharreko denbora eta formatua bera kontutan hartu beharko litzateke horretarako. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Euskararen ulermena hedatzea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Zerbitzuak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Emakume etorkinak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala<br>• AEK | 2024 | AEK | • Antolatutako ikastaro kopurua<br>• Izena emandako emakume kopurua<br>• Ikastaroak amaitutako emakume kopurua<br>• Emakumeen balorazioa<br>• Irakasleen balorazioa | MARTXAN* |

**Euskaltegian etorkinei zuzenduta Aisa programa dute, bereziki emakumeak joaten dira. Gainera, aurten lortu dena da euskara ikastearen doakotasuna denentzat.*

| PLANAREN HELBURUA | EUSKARA. Euskararen ezagutza eta erabilera herriko testuinguru guztietan normaltzea | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Euskara ikasteko prozesuaren egokitzapena** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Helduek euskara ikas dezaten errazteko ordutegiak malgutu eta lantokiekin akordioak sustatzea. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Helduek euskaraz ikasi ahal izateko baldintzak erraztea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Zerbitzuak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Euskara ikasten ari diren edo ikasi nahi duten helduak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala<br>• AEK<br>• Inguruko lantokiak | 2023 | AEK | • Lantokiekin lortutako akordioak<br>• Euskara ikastaroetan izena ematen duten pertsona kopurua<br>• Ikasturtea amaitzen duten pertsona kopurua<br>• Egokitutako ikastaro kopurua | BERRIA |

**Udalak ez ditu eskolak kudeatzen, diruz laguntzen ditu.*

| PLANAREN HELBURUA | **EUSKARA. Euskararen ezagutza eta erabilera herriko testuinguru guztietan normaltzea** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Administrazioa euskaraz** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Euskararen ezagutza administrazio publikoko edozein zerbitzutan aritzeko ezinbesteko baldintza bilakatuz edozeinek aukera izango du bertan euskaraz komunikatzeko. Azpikontratatutako zerbitzuetan ere baldintza berberak mantentzea garrantzitsua da, finean, azpikontratatutako taldeak/enpresak zerbitzu publiko bat eskainiko duelako. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Eremu publikoan eta azpikontratatutako zerbitzuetan euskarazko zerbitzua bermatzea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Legeak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak, orokorrean | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala | 2023 | Erakunde eta zerbitzu publikoak | • Herritarren balorazioa | MARTXAN |

**Udalak aspalditik ezartzen ditu hizkuntza baldintzak kontratuetan. Udaleko erabilera planaren arabera, udaleko lan hizkuntza euskara da, plenoak hala onartuta. Udaletxeko langile guztiek lanpostuan diharduten bitartean euskaraz aritzeko derrigortasuna dute, denek dutelako lanpostuari dagokion profila. Politikariek ere denek dakite euskaraz.*

| PLANAREN HELBURUA | EUSKARA. Euskararen ezagutza eta erabilera herriko testuinguru guztietan normaltzea | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Lantokian euskaraz** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Azkoitiko enpresetan euskara planak sustatzeko diru laguntzak eskaini (laguntza honen bidez, gaur egun 3 enpresa ari dira euskara planak egiten). | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Lan munduan euskararen erabilera sustatzea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Zerbitzuak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko lantokiak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala<br>• Sektore pribatua | 2023 | Erakunde eta enpresa pribatuak | • Diru laguntza honen bitartez euskara planak abiatutako enpresak | MARTXAN |

# KULTURA

| PLANAREN HELBURUA | KULTURA. Azkoitiak herri bizia izaten jarraitu dezan, herriko ondarea, sortzaileak eta kultur egitasmoak lankidetzan hauspotzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Uda musikala** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Duela urte batzuk udan kalean egiten ziren doako kontzertuak berreskuratzea. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Gazteen aisialdirako aukera ezberdina eskaintzea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Zerbitzuak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak, orokorrean | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala<br>• Azkoitiko tabernak | Uda | Bizilagunak ez molestatzeko lekuak topatu beharko lirateke | • Partaide kopurua<br>• Antolatutako ekintza kopurua | MARTXAN |

**Orain ere udan kalean musika emanaldiak antolatzen dira.*

| PLANAREN HELBURUA | KULTURA. Azkoitiak herri bizia izaten jarraitu dezan, herriko ondarea, sortzaileak eta kultur egitasmoak lankidetzan hauspotzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Kaleon** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Asteburuetan, herria pizteko ekintzak egitea, urte osoan zehar. Herrian bizi eta gozatu nahi duten herritarrek aukera eta eskaintza gehiago izateko. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Kaleak urte osoan zehar bizirik edukitzea eta Azkoitia herritarrentzako kultur eta aisialdi gunea izatea. | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Zerbitzuak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak, orokorrean | • Azkoitiko Udala<br>• Herriko kultur elkarte edo kooperatiba | • Herriko kultur elkarte edo kooperatiba | Urte osoan zehar | Herriko kaleetan eta kooperatibaren gune berezian | • Kultur eta aisialdi eskaintza kopurua<br>• Herritarren iritzia | BERRIA |

**Ia astebururo daude ekintzak.*

| PLANAREN HELBURUA | KULTURA. Azkoitiak herri bizia izaten jarraitu dezan, herriko ondarea, sortzaileak eta kultur egitasmoak lankidetzan hauspotzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Zinema inklusiboa** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Zine aretoan filmek azpi-tituluak izatea (ordutegi batzuetan gutxienez) eta bukle magnetiko sistema ezartzea. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Entzumen urritasuna duten pertsonentzako zinemarako sarbidea bermatzea. | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Azpiegiturak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Entzumen urritasuna duten pertsonak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala | 2023 | Zine aretoa | • Eskainitako azpi-tituludun film kopurua<br>• Bukle magnetiko sistema ezarria egotea | BERRIA |

<table>
<tr><td>PLANAREN HELBURUA</td><td colspan="6">KULTURA. Azkoitiak herri bizia izaten jarraitu dezan, herriko ondarea, sortzaileak eta kultur egitasmoak lankidetzan hauspotzea.</td></tr>
<tr><td>EKINTZA</td><td colspan="6">Kultura inklusiboa</td></tr>
<tr><td>DESKRIBAPENA</td><td colspan="6">Kultur ekintza guztietan lehentasun txartela eta sarrera irisgarriak ezarri.</td></tr>
<tr><td>EKINTZAREN HELBURUA</td><td colspan="6">Kultur ekimenetan aniztasun funtzionala duten pertsonen parte hartzea erraztea.</td></tr>
<tr><td>ERAGIN EREMUA</td><td colspan="6">Zerbitzuak</td></tr>
<tr><td>HARTZAILE NAGUSIAK</td><td>ARDURADUNA(K)</td><td>PARTAIDEAK</td><td>SASOIA</td><td>LEKUA</td><td>ADIERAZLEA(K)</td><td>EGOERA</td></tr>
<tr><td>Aniztasun funtzionala duten pertsonak</td><td>• Azkoitiko Udala</td><td>• Azkoitiko Udala</td><td>2023</td><td>Kultur guneak</td><td>• Seinaletika aldatu izana<br>• Kultur ekintzetarako eskainitako lehentasun txartel kopurua<br>• Sarrera guztiak irisgarriak izatea</td><td>OSATU</td></tr>
</table>

**Festetan, barraketan adibidez lehentasun txartela erabiltzen da.*

<table>
<tr><td>PLANAREN HELBURUA</td><td colspan="6">KULTURA. Azkoitiak herri bizia izaten jarraitu dezan, herriko ondarea, sortzaileak eta kultur egitasmoak lankidetzan hauspotzea.</td></tr>
<tr><td>EKINTZA</td><td colspan="6">Kultur ondarea</td></tr>
<tr><td>DESKRIBAPENA</td><td colspan="6">Herriko gune esanguratsuen seinalizazioa plaken bitartez eta gailu teknologikoen erabileraren bidez informazioa zabaltzeko. Wikipedian edo Udalaren web orrian Azkoitiko kultur guneen eta historiaren inguruko azalpen osatua argitaratu eta QR kode baten bidez lotura eskaini. Horrela, Azkoitiko kultur ondarea modu irekian eskuragarri egongo da bai tokian bertan eta baita sarean ere.</td></tr>
<tr><td>EKINTZAREN HELBURUA</td><td colspan="6">Azkoitiko ondare kulturala babestu eta ezagutzera ematea.</td></tr>
<tr><td>ERAGIN EREMUA</td><td colspan="6">Sentsibilizazioa</td></tr>
<tr><td>HARTZAILE NAGUSIAK</td><td>ARDURADUNA(K)</td><td>PARTAIDEAK</td><td>SASOIA</td><td>LEKUA</td><td>ADIERAZLEA(K)</td><td>EGOERA</td></tr>
<tr><td>Azkoitiko herritarrak eta kanpotik etortzen diren bisitariak</td><td>• Azkoitiko Udala<br>• Iraurgi Berritzen</td><td>• Iraurgi Berritzen<br>• Azkoitiko Udala<br>• Ondarearen inguruko talde eta elkarteak</td><td>2023-2024</td><td>Kultur ondare guneak</td><td>• Jarritako seinaletika eta plakak<br>• Sarean argitaratutako azalpenak</td><td>MARTXAN</td></tr>
</table>

**Iraurgi Berritzenen Turismo arlotik martxan dago QR bidez gune turistikoenak markatzea.*

# JATORRI ETA KULTUR ANIZTASUNA

| PLANAREN HELBURUA | JATORRI eta KULTUR ANIZTASUNA. Azkoitiko biztanleen arteko jatorri eta kultur aniztasuna bizikidetzarako balio bilakatzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Harrera eta bide-laguntza zerbitzua** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Azkoitira iristen diren pertsona eta familia berrientzako harrera zerbitzu bat eskainiko da. Herrian kokatzeko, dituzten nahi eta beharrak asetzen laguntzeko eta herrian txertatzeko ezinbestekoa da norbaitengana jotzeko aukera izatea. Askotan gizarte zerbitzuek egiten dute lan honen parte bat baina era integralago batean pentsatu beharko litzateke harrera zerbitzu hau. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Azkoitiko herritar berriak herriarengandik babestuak sentitzea eta bertan txertatzeko aukerak izatea. | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Zerbitzuak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitira iritsi berri diren pertsonak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala | 2024 | Elkargunean edo Udaletxean | • Zerbitzua martxan jarri izana<br>• Herritar berrien balorazioa<br>• Herritar berrien parte hartzea herriko ekimen ezberdinetan<br>• Zerbitzua erabili duen herritar kopurua | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | JATORRI eta KULTUR ANIZTASUNA. Azkoitiko biztanleen arteko jatorri eta kultur aniztasuna bizikidetzarako balio bilakatzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Haur eta nerabeentzako aisialdi hurbilpena** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Ikasturtean zehar eta udan haur eta nerabeek elkarrekin eta euskaraz harremantzeko ekimenak antolatu eta dinamizatuko dira, begiraleen bitartez. Parkean jolasak antolatu daitezke, edo elkargunean eguraldi txarra egiten duenean. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Jatorri eta kultura ezberdinetako haur eta nerabeen arteko hurbilpena sustatzea euskaraz | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Zerbitzuak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko haur eta nerabeak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala | Urte osoan zehar, 2024an hasita | Elkargunean eta herriko parkeetan | • Zerbitzua martxan jarri izana<br>• Haur eta nerabeen arteko euskararen erabilera<br>• Parte hartzen duten haur eta nerabe kopurua<br>• Haurren, nerabeen eta familien balorazioa | BERRIA |

**Abarketatxo ludoteka eta Artxamendi topalekua daude horretarako; baita Gazte Zerbitzu bulegoa ere.*

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| PLANAREN HELBURUA | JATORRI eta KULTUR ANIZTASUNA. Azkoitiko biztanleen arteko jatorri eta kultur aniztasuna bizikidetzarako balio bilakatzea. | | | | | |
| EKINTZA | **Kultur-aniztasun jaialdia** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Azkoitiko herritarren artean dauden kultura ezberdinak erakutsi eta elkarbanatzeko jaialdia antolatuko da. Bertan jatekoak, dantzak, musika saioak, etab. antolatuko dira. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Herriko komunitate kultural ezberdinen arteko elkar ezagutza sustatzea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Sentsibilizazioa | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak, orokorrean | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala<br>• Herriko elkarteak | 2024 | Elkargunean edo Udaletxean | • Parte hartzaile kopurua<br>• Antolatzaileen balorazioa<br>• Parte hartzaileen balorazioa | BERRIA |

**Egin izan da. Ez komunitate guztiekin, baina afrikarrekin bai behintzat. Egonkortu gabe dago ekimena.*

# PAREKIDETASUNA

<table>
<tr><td>PLANAREN HELBURUA</td><td colspan="6">PAREKIDETASUNA. Gizon eta emakumeen arteko desberdinkeria ezabatzea eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak bultzatzea.</td></tr>
<tr><td>EKINTZA</td><td colspan="6">Erantzunkidetasuna lantzen</td></tr>
<tr><td>DESKRIBAPENA</td><td colspan="6">Gizonek zaintza lanen erantzunkizuna ere bere gain hartzeko sentsibilizazio kanpaina egingo da.</td></tr>
<tr><td>EKINTZAREN HELBURUA</td><td colspan="6">Zaintza lanetan gizonen erantzunkidetasuna lantzea</td></tr>
<tr><td>ERAGIN EREMUA</td><td colspan="6">Sentsibilizazioa</td></tr>
<tr><td>HARTZAILE NAGUSIAK</td><td>ARDURADUNA(K)</td><td>PARTAIDEAK</td><td>SASOIA</td><td>LEKUA</td><td>ADIERAZLEA(K)</td><td>EGOERA</td></tr>
<tr><td>Gizonak</td><td>• Azkoitiko Udala</td><td>• Azkoitiko Udala</td><td>2023</td><td>Herrian zehar fisikoki eta sare sozialetan, komunikabideetan</td><td>• Kanpaina egin izana<br>• Kanpainaren difusio-emaitzak (zenbat panfleto, zenbat saio…)<br>• Kanpainarekin iritsitako pertsona kopurua</td><td>BERRIA</td></tr>
</table>

**Egin izan da 50/50 kanpaina adibidez.*

<table>
<tr><td>PLANAREN HELBURUA</td><td colspan="6">PAREKIDETASUNA. Gizon eta emakumeen arteko desberdinkeria ezabatzea eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak bultzatzea.</td></tr>
<tr><td>EKINTZA</td><td colspan="6">Ahalduntze prozesuak</td></tr>
<tr><td>DESKRIBAPENA</td><td colspan="6">Emakumeen ahalduntze prozesuak sustatuko dira. Udaleko berdintasun sailak zerbitzu bat eskainiko du, profesionalizatua, ikastaroetatik haratago, prozesu hauetan zehar emakumeak laguntzeko. Hala, ikuspegi integral batetik ulertutako prozesuak diseinatuko dira parte hartzen duten emakumeen eta bide-lagunen artean eta berau betetzeko baliabideak erraztuko dira.</td></tr>
<tr><td>EKINTZAREN HELBURUA</td><td colspan="6">Emakumeen ahalduntzean sakontzea</td></tr>
<tr><td>ERAGIN EREMUA</td><td colspan="6">Zerbitzuak</td></tr>
<tr><td>HARTZAILE NAGUSIAK</td><td>ARDURADUNA(K)</td><td>PARTAIDEAK</td><td>SASOIA</td><td>LEKUA</td><td>ADIERAZLEA(K)</td><td>EGOERA</td></tr>
<tr><td>Emakumeak</td><td>• Azkoitiko Udala</td><td>• Azkoitiko Udala</td><td>2024</td><td>Udaletxean edo elkargunean</td><td>• Zerbitzua martxan jarri izana<br>• Parte hartzen duen emakume kopurua<br>• Emakumeen balorazioa<br>• Zerbitzua eskaintzen duten profesionalen balorazioa</td><td>BERRIA</td></tr>
</table>

# PARTAIDETZA

| PLANAREN HELBURUA | PARTAIDETZA. Herri parte-hartzailea sustatzea, herritarren, komunitateen eta erakunde publikoen arteko harremanak landuz. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Udal zerbitzuen burokratizazio behatokia** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Udal zerbitzuen burokratizazioa gehiegizkoa dela baloratu da eta, marko legalak behar dituzten arren, herritarrak erdigunean jarri beharko lituzkete. Hori errazteko, herritarrek egin beharreko tramiteak kudeatzeko laguntza eskainiko duen zerbitzu bat behar beharrezkoa da. Zerbitzu honek, aldi berean, udalaren gehiegizko burokratizazioa murrizteko lan egingo du. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Herritarren eta administrazio publikoaren arteko distantziak hurbildu eta gestio administratibo burokratikoak pertsona guztientzako irisgarri egitea. | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Zerbitzuak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak, orokorrean | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala | 2023tik hasita | Udaletxean | • Erabiltzaileen iritzia<br>• Erabiltzaile kopurua<br>• Udal zerbitzuen balorazioa | BERRIA |

# LAN ILDOA: HERRI IRAUNKOR ETA ARDURATSUA

## ENERGIA

<table>
<tr><td>PLANAREN HELBURUA</td><td colspan="6">ENERGIA. Azkoitiko energia beharrak asetuko dituzten ekoizpen propioa garatzeko egitasmoak martxan jartzea.</td></tr>
<tr><td>EKINTZA</td><td colspan="6">Oletako haize erroten proiektuari erantzun</td></tr>
<tr><td>DESKRIBAPENA</td><td colspan="6">Oletan Capital Energy enpresak aerosorgailuak jartzeko duen proiektua ezagututa, Azkoitiarentzako ekarriko dituen ondorioak aztertu eta horren aurrean herri bezala kokatzeko eztabaidak antolatuko dira. Horrela, gaiaren alderdi guztiak ezagututa, hartzen den erabakia kontutan hartu eta Azkoitiko Udalak proiektuaren enpresa sustatzailearekin elkarrizketa sustatuko du, herriaren interesak babesteko dauden aukerak aztertzeko.</td></tr>
<tr><td>EKINTZAREN HELBURUA</td><td colspan="6">Energia eredu propiora bidean herriaren interesak babestea.</td></tr>
<tr><td>ERAGIN EREMUA</td><td colspan="6">Sentsibilizazioa</td></tr>
<tr><td>HARTZAILE NAGUSIAK</td><td>ARDURADUNA(K)</td><td>PARTAIDEAK</td><td>SASOIA</td><td>LEKUA</td><td>ADIERAZLEA(K)</td><td>EGOERA</td></tr>
<tr><td>• Azkoitiko herria, bere osotasunean<br>• Capital Energy enpresa</td><td>• Azkoitiko Udala</td><td>• Azkoitiko Udala<br>• Ingurumen foroa<br>• Oletan ere Ez Taldea<br>• Capital Energy enpresa</td><td>2022, 2023</td><td>Elkargunean eta Udaletxean</td><td>• Udalak herritarrekin eztabaidatutako iritzi bat izan eta posizionatzea Oletako proiektuari dagokionez<br>• Capital Energy enpresarekin elkarrizketak</td><td>BERRIA</td></tr>
</table>

**Ingurumen mahaian jorratuko da gaia. Enpresa sustatzailea batzorde batera gonbidatu zen eta alderdi guztiek izan zuten informazioa enpresaren eskutik*

<table>
<tr><td>PLANAREN HELBURUA</td><td colspan="6">ENERGIA. Azkoitiko energia beharrak asetuko dituzten ekoizpen propioa garatzeko egitasmoak martxan jartzea.</td></tr>
<tr><td>EKINTZA</td><td colspan="6">Udalaren ekoizpen energetikoa</td></tr>
<tr><td>DESKRIBAPENA</td><td colspan="6">Azkoitiko eraikin publikoetan panel fotovoltaikoak jarriko dira. Horrela, aurrera pausoak emango dira energia berriztagarrien alde, administrazio publikoaren ekoizpen eta kontsumotik hasita. Administrazio publikoa eredu izatea interesgarria da halakoetan, gerora herriko beste esparru batzuetan zabaldu ahal izateko.</td></tr>
<tr><td>EKINTZAREN HELBURUA</td><td colspan="6">Energia iraunkor eta arduratsua ekoitzi eta kontsumitzea.</td></tr>
<tr><td>ERAGIN EREMUA</td><td colspan="6">Azpiegiturak</td></tr>
<tr><td>HARTZAILE NAGUSIAK</td><td>ARDURADUNA(K)</td><td>PARTAIDEAK</td><td>SASOIA</td><td>LEKUA</td><td>ADIERAZLEA(K)</td><td>EGOERA</td></tr>
<tr><td>Azkoitiko administrazio publikoa</td><td>• Azkoitiko Udala</td><td>• Azkoitiko Udala<br>• Goiener</td><td>2023, 2024</td><td>Eraikin publiko guztietan</td><td>• Jarritako panel kopurua<br>• Azkoitiko Udalak kontsumitzen duen ekoizpen propiokoa den energia kopurua</td><td>BERRIA</td></tr>
</table>

**Hiru eraikin publikotan badaude.*

## MUGIKORTASUNA

| PLANAREN HELBURUA | MUGIKORTASUNA. Garraio ohiturak aldatuz karbono isuriak murriztea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Alde zaharreko trafiko mugaketa** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Herriko plazan eta alde zaharrean zehar trafiko handia izaten da goizetan. Kutsadurari aurre egin eta oinezkoak lehenesteko, autoak plazan aparkatzea debekatuko da eta alde zaharrera ibilgailuen sarbidea mugatuko da. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Alde zaharrean autoen erabilera murriztea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Legeak sortu | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala | 2024 | Alde zaharra | • Alde zaharreko kutsadura<br>• Autoen erabilera maila<br>• Oinezko eta bizikleta kopurua | OSATU |

**Plaza arratsaldetan eta asteburuetan itxita egoten da. Alde Zaharreko sarrera ere itxita egoten da ostiralean 20:00etatik igande gauera.*

| PLANAREN HELBURUA | MUGIKORTASUNA. Garraio ohiturak aldatuz karbono isuriak murriztea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Auzmendi bideko trafiko erregulazioa** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Norantza bakarra jarriko da zeinetan bidegorria egongo den eta abiadura radar bidez mugatuko den. Gainera, zarata gutxiko asfaltoa jarriko da kutsadura akustikoa gutxitzeko. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Auzmendi bidea oinezkoak eta bizikletak lehenesteko egokitzea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Legeak sortu, azpiegiturak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Auzmendi bideko bizilagunak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala | 2023 | Auzmendi Bidea | • Auzmendi bideko trafikoa murriztu izana | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | MUGIKORTASUNA. Garraio ohiturak aldatuz karbono isuriak murriztea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Erregai garbia** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Autoak kargatzeko elektrizitate poste berriak jarri herrian. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Auto elektrikoen erabilera sustatzea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Azpiegiturak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala | 2023 | Julio Urkijo kalean edo inguruan | • Elektrizitate poste kopurua herrian. | MARTXAN |

**Ibilgailu elektrikoentzat bi karga-gune daude herrian.*

| PLANAREN HELBURUA | MUGIKORTASUNA. Garraio ohiturak aldatuz karbono isuriak murriztea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Garraio jasangarrirantz** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Herritar asko dira ibilgailu pribatua erabiltzen dutenak. Lan egunetan errepideak kotxez beteta daude, normalean txoferra besterik ez dute eramaten. Horri aurre egiteko autoak elkarbanatzeko dinamikak sustatuko dira: hala nola, aplikazioen erabilera edota aparkaleku bereziak eskaintzea. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Erabiltzen den auto kopurua murriztea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Sentsibilizazioa, legeak sortu | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko auto gidari eta erabiltzaileak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala<br>• Gipuzkoako Foru Aldundia | 2023 | Herrian zehar, auzoka | • Gidaria soilik daraman auto kopurua gutxitu izana<br>• Ibilgailu pribatu kopurua gutxitu izana<br>• Autoa konpartitzeko aplikazioaren erabilera handitu izana<br>• Honi lotutako ekintza kopurua (aplikazioa, sentsibilizazio kanpaina, etab.) | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | MUGIKORTASUNA. Garraio ohiturak aldatuz karbono isuriak murriztea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Bizikleta aparkaleku estaliak** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Auzo ezberdinetan bizikletentzako aparkaleku estaliak jartzea. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Herrian bizikletak modu egokian gorde ahal izateko baliabideak eskaintzea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Azpiegiturak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala | 2023 | Herrian zehar, auzoka | • Instalatutako aparkaleku kopurua<br>• Bizikleten erabilera handitu izana | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | MUGIKORTASUNA. Garraio ohiturak aldatuz karbono isuriak murriztea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Bidegorrien argiztatzea** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Bidegorriko tunelak argiztatzea. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Bizikleten erabilera erraztu eta sustatzea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Azpiegiturak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala | 2023 | Bidegorria | • Argiztatutako km kopurua<br>• Jarritako farola kopurua | EGINA |

**Aldundiak berriki konpondu ditu tuneletako argiak.*

# IRISGARRITASUNA

| PLANAREN HELBURUA | IRISGARRITASUNA. Azkoitiko espazio eta eraikin publikoak pertsona guztientzako irisgarri bilakatzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Zuazola irisgarri** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Zuazola auzoko obrak egin. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Zuazolako bideak eta atariak pertsona guztientzako irisgarri bihurtzea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Azpiegiturak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Zuazolako bizilagunak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala | 2023 | Zuazola | • Zuazolako atari irisgarri kopurua<br>• Zuazolako edozein lekutara iristeko egokituak izandako bideak | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | IRISGARRITASUNA. Azkoitiko espazio eta eraikin publikoak pertsona guztientzako irisgarri bilakatzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **San Martin irisgarri** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | San Martin auzoko irisgarritasun proposamena moldatu; igogailua beharrean, egun eskailerak dauden lekuan obrak egin eskailera edo zinta mekanikoak jartzeko. Igogailua, berriz, Munoneko etxe paretik goraino joateko moduan jarri. Tarteka geldiuneak jarriz auzo guztia lotuta geratuko da horrela. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | San Martin auzoko irisgarritasuna auzokideentzako erabilgarria izatea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Azpiegiturak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| San Martineko bizilagunak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala | 2023, 2024 | San Martin | • San Martineko edozein lekutara iristeko egokituak izandako bideak | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | IRISGARRITASUNA. Azkoitiko espazio eta eraikin publikoak pertsona guztientzako irisgarri bilakatzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Floreaga irisgarri** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Floreaga auzoan igogailuak ipini. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Floreagan aldapak ekidin ahal izatea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Azpiegiturak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Floreagako bizilagunak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala | 2025 | Floreaga | • Instalatutako igogailuak | MARTXAN |

**Igogailu bat jarrita dago eta bigarrena jartzeko lanak lizitaziora bidean.*

| PLANAREN HELBURUA | IRISGARRITASUNA. Azkoitiko espazio eta eraikin publikoak pertsona guztientzako irisgarri bilakatzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Plaza berri guztiontzako** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Plaza berri egokitu. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Plaza berri muga arkitektonikorik gabeko gunea izatea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Azpiegiturak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala | 2024 | Plaza berri | • Egindako interbentzio kopurua | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | IRISGARRITASUNA. Azkoitiko espazio eta eraikin publikoak pertsona guztientzako irisgarri bilakatzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Konponketa zehatzak** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Klara Donea 50tik Munategira espaloia jarri, Bizkargiko zuloak konpondu eta Kurutzia ondoko haurrentzako jolastokia hobetu. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Herria txukun eta herritarrentzako eroso mantentzea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Azpiegiturak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala | 2022 | Klara Donea, Bizkargi eta Kurutzia | • Konponketak egin izana | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | IRISGARRITASUNA. Azkoitiko espazio eta eraikin publikoak pertsona guztientzako irisgarri bilakatzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Irisgarritasun unibertsalaren mahaia** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Eragile ezberdinez osatutako mahai bat sortuko da Azkoitia irisgarri izan dadin lanketa egiteko. Azkoitia guztiz irisgarria izateko egin beharreko aldaketak identifikatu eta proposatuko ditu mahai honek. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Irisgarritasunaz kolektiboki arduratzea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Azpiegiturak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala<br>• Marea Urdina<br>• Ikastetxeak<br>• Adinekoen elkarteak | 2023 | Elkargunea | • Mahaia osatzea<br>• Identifikatutako aldaketa beharrak<br>• Aldaketa horien egikaritzea | BERRIA |

**Irisgarritasun plana egin da aurten.*

# TRANTSIZIO EKONOMIKOA

| | |
|---|---|
| PLANAREN HELBURUA | TRANTSIZIO EKONOMIKOA. Azkoitiko ekonomia arduratsu eta iraunkorra ahalbidetuko duen eraldaketa prozesua burutzea, tokiko baliabideak eta potentziala balioan jarriz eta erabiliz. |
| EKINTZA | **Nik bertakoa** |
| DESKRIBAPENA | Merkatu globalaren arriskuez zein bertako produktuen eta merkatarien balioaren inguruko lanketa egiteko kanpaina bat abiatu. Dagoeneko egiten den arren, ideia eta formatu berrietan pentsatzeko ariketa garrantzitsua da. |
| EKINTZAREN HELBURUA | Bertako ekonomia hauspotzea |
| ERAGIN EREMUA | Sentsibilizazioa |

| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Azkoitiko herritarrak | • Azkoitiko Udala<br>• Herrixen | • Azkoitiko Udala<br>• Herrixen | 2023, 2024 | - | • Bertako merkataritzaren salmenta igoera<br>• Herritarrek bertakoari ematen dioten garrantzia subjektiboa handitu izana | MARTXAN |

| | |
|---|---|
| PLANAREN HELBURUA | TRANTSIZIO EKONOMIKOA. Azkoitiko ekonomia arduratsu eta iraunkorra ahalbidetuko duen eraldaketa prozesua burutzea, tokiko baliabideak eta potentziala balioan jarriz eta erabiliz. |
| EKINTZA | **Guk bertakoa** |
| DESKRIBAPENA | Herriko tabernek, jatetxeek, ikastetxeetako jangelek etab. bertako ekoizleen produktuak erosteko bide-laguntza egingo da Herrixenen bitartez. |
| EKINTZAREN HELBURUA | Azkoitiko ekoizpen eta kontsumo zirkularra sustatzea. |
| ERAGIN EREMUA | Zerbitzuak |

| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Azkoitiko ostalaritza eta jantokiak | • Azkoitiko Udala<br>• Herrixen | • Herrixen<br>• Baserritarrak<br>• Tabernarien elkartea<br>• Ikastetxeak | 2023, 2024 | - | • Bertako produktuz hornitutako ostalaritza gune kopurua<br>• Ostalaritza guneek erabiltzen duten bertako produktu kopurua | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | TRANTSIZIO EKONOMIKOA. Azkoitiko ekonomia arduratsu eta iraunkorra ahalbidetuko duen eraldaketa prozesua burutzea, tokiko baliabideak eta potentziala balioan jarriz eta erabiliz. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Azkoitia sarean** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Produktuen online erakusleihoak indartzeko ekimena abiatu. Komertzio bakoitzak bere sareetan eta abar egindako lanaz gain, Azkoitiko saltzaileek eskaintzen dituzten produktu guztien erakusleiho izango den web plataforma eratzea. Horrela, Amazon eta halakoek egiten duten antzera, denda bakoitzean begiratu beharrean, herriko eskaintza guztia zentralizatua egongo da eta intereseko produktuaren arabera egin ahal izango dira bilaketak. Plataforma hau zuzenean saltzaileek eguneratu ahal izango dute eta, beraz, ezinbestekoa da horretarako ikastaroak jasotzea. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Bertako ekonomia sarearen bitartez hauspotzea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Zerbitzuak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak | • Azkoitiko Udala<br>• Herrixen | • Azkoitiko Udala<br>• Herrixen | 2025 | Internet | •Plataforma erabiltzen duen saltzaile kopurua<br>•Plataforma erabiltzen duen herritar kopurua<br>•Bertako merkataritzaren salmenta igoera | BERRIA |

**Mahai gainean dagoen gaia da.*

# LAN ILDOA: ONGIZATEA

## ZAINTZA

| PLANAREN HELBURUA | ZAINTZA. Erantzunkidetasunetik, herri gisa Azkoitirako baliagarria izango den zaintza eredu propioa landu eta egikaritzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Zaintza taldea** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Pertsonak ardatz edukiko dituen zaintza talde zabal bat sortuko da. Talde hau bolondresek osatuko dute eta besteak beste honako zereginak izango ditu: adin txikikoen babesa bermatzea beste eragileekin koordinazioan; egoitzako egoiliarren egoera hobetzeko giro atsegina sustatzera joango den eta bai bertan eta bai herriko beste lekuetan beraientzako ekintzak burutuko dituzten herritar taldeak antolatu eta horretarako baliabideak jartzea. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Herriko pertsona talde zaurgarrienak herritar antolakuntzaren bidez zaindu eta babestea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Azpiegiturak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herria, bere osotasunean | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala<br>• Herritar bolondresak | 2023an hasita | Elkargunea | • Taldeko bolondres kopurua<br>• Taldeak antolatutako ekimen kopurua<br>• Bolondresen balorazioa<br>• Egoiliarren balorazioa<br>• Familien balorazioa | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | ZAINTZA. Erantzunkidetasunetik, herri gisa Azkoitirako baliagarria izango den zaintza eredu propioa landu eta egikaritzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Bitartekaritza** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Familiarren/herritarren eta Egoitzako zuzendaritzaren arteko bitartekaritza egin egoiliarren egoera hobetzeko dinamika komunitarioak bideratu ahal izateko. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Herritarrek egoitzan paper aktiboa izateko erraztasunak ematea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Zerbitzuak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Egoitzako egoiliarrak eta familiak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala<br>• Zaintza taldea | 2023an hasita | Egoitza | • Taldeko bolondres kopurua<br>• Taldeak antolatutako ekimen kopurua<br>• Bolondresen balorazioa<br>• Egoiliarren balorazioa<br>• Familien balorazioa | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | ZAINTZA. Erantzunkidetasunetik, herri gisa Azkoitirako baliagarria izango den zaintza eredu propioa landu eta egikaritzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Errolda soziala** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Zerbitzu/prestazio guztietarako sarbidea bermatzeko (osasun, hezkuntza eta gizarte babespekoak) erroldatuta egon behar da. Herrian, non erroldatu ez daukaten pertsonak daude. Presidentziako Ministerioaren idazkariordetzak 2015eko martxoaren 16ean udal-erroldaren kudeaketari buruz emandako ebazpenaren bidez xedatutakoa aintzat hartuta, Idazkaritza Nagusiaren 1/2026 Instrukzioak ETXERIK GABEKO PERTSONEN ERROLDA-ESKAERAK IZAPIDETZEKO jarraibideak hartuko dira oinarritzat, eta Azkoitiko udalak, horretarako behar diren urratsak emango ditu errolda soziala ezar dadin herrian. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Oinarrizko zerbitzuetara sarbidea unibertsala izatea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Zerbitzuak, legeak sortu | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Herrian bizi diren eta non erroldatu ez daukaten pertsonak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala | 2022 | Udaletxea | • Errolda soziala legez onartzea | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | ZAINTZA. Erantzunkidetasunetik, herri gisa Azkoitirako baliagarria izango den zaintza eredu propioa landu eta egikaritzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Aisialdi inklusiboa** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Ludoteka, gaztetxoko eta udalekuetan aniztasun funtzionala duten pertsonen behar bereziei aurre egiteko errekurtso eta monitore espezifikoak formakuntzarekin izatea beharra balitz, aisialdia ahal den heinean era inklusibo batean izan dezaten. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Edozein aniztasun funtzionalekin bizi diren pertsonek herrian eskaintzen diren aisialdi ekintzetan parte hartzeko baliabideak bermatzea | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Zerbitzuak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Aniztasun funtzionalarekin bizi diren haur, nerabe eta gazteak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala<br>• Aisialdi taldeak | 2022 | Aisialdi guneak | • Aniztasun funtzionala dutenek inongo eragozpenik gabe herriko edozein aisialdi talde-ekintzetan parte hartu ahal izango dutenean | MARTXAN |

**Hezitzaileek formazioa jasotzen dute aniztasun funtzionala duten haurrekin lan egiteko*

| PLANAREN HELBURUA | ZAINTZA. Erantzunkidetasunetik, herri gisa Azkoitirako baliagarria izango den zaintza eredu propioa landu eta egikaritzea. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Kontziliazioan sakonduz** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Kontziliazioa errazteko sektore publiko zein pribatua inplikatzea. | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak, orokorrean eta bereziki zaintza ardurak dituztenak | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala<br>• Azkoitiko lantoki, enpresak | 2023 | | | BERRIA |

## ENPLEGUA

<table>
<tr><td>PLANAREN HELBURUA</td><td colspan="6">ENPLEGUA. Egungo gizarte erronkei erantzungo dieten kalitatezko enplegu aukerak garatzea.</td></tr>
<tr><td>EKINTZA</td><td colspan="6">Lan inklusiboa</td></tr>
<tr><td>DESKRIBAPENA</td><td colspan="6">Sortzen diren lanpostu edo aldi baterako lanetarako aniztasun funtzionala duten herritarrak kontratatu. Ekitaldi, festak, etab. antolatzen direnean, berau aurrera eramateko aniztasun funtzionala duten pertsonekin kontatu. Herriko enpresei pizgarriak eman aniztasun funtzionala duten herritarrak kontratatzeko.</td></tr>
<tr><td>EKINTZAREN HELBURUA</td><td colspan="6">Herriko aniztasun funtzionala duten pertsonen lan munduratzean aukerak sortzea Udalak.</td></tr>
<tr><td>ERAGIN EREMUA</td><td colspan="6">Zerbitzuak</td></tr>
<tr><td>HARTZAILE NAGUSIAK</td><td>ARDURADUNA(K)</td><td>PARTAIDEAK</td><td>SASOIA</td><td>LEKUA</td><td>ADIERAZLEA(K)</td><td>EGOERA</td></tr>
<tr><td>Aniztasun funtzionalarekin bizi diren gazte eta helduak</td><td>• Azkoitiko Udala</td><td>• Azkoitiko Udala<br>• Iraurgi berritzen<br>• Enpresak</td><td>2023</td><td>Udala, enpresak</td><td>• Aniztasun funtzionala duten pertsonen laneratze tasa</td><td>MARTXAN</td></tr>
</table>

**Behar bereziak dituzten pertsonen laneratzea bultzatzen da Gureak eta Atzegiren bitartez edota ZIG gelako ikasleei praktikak eskainiz.*

## ETXEBIZITZA

<table>
<tr><td>PLANAREN HELBURUA</td><td colspan="6">ETXEBIZITZA. Etxebizitza eskubide moduan balioan jartzea espekulazio eskematik at eta etxe hutsen aurrean sentsibilizatuz.</td></tr>
<tr><td>EKINTZA</td><td colspan="6">Alokairurako diru-laguntzen informazio kanpaina</td></tr>
<tr><td>DESKRIBAPENA</td><td colspan="6">Alokairurako dauden laguntzen inguruko informazio kanpaina egingo da bi urtean behin herri mailan:<br>• Gazte Lagun (Eusko Jaurlaritza)<br>• Azkoitiko Udalaren diru-laguntza, gazteengandik haratago zabalduko dena<br>• Etxebizitza eskubide subjektiboa: Etxebiden alokairurako 4 urtez izena emanda egon ostean, Eusko Jaurlaritza derrigortuta dago etxebizitza bat eskaini edo alokairurako diru-laguntza bat emateko.</td></tr>
<tr><td>EKINTZAREN HELBURUA</td><td colspan="6">Herritarrei alokairua ordaintzeko erraztasunak ematea</td></tr>
<tr><td>ERAGIN EREMUA</td><td colspan="6">Zerbitzuak</td></tr>
<tr><td>HARTZAILE NAGUSIAK</td><td>ARDURADUNA(K)</td><td>PARTAIDEAK</td><td>SASOIA</td><td>LEKUA</td><td>ADIERAZLEA(K)</td><td>EGOERA</td></tr>
<tr><td>Azkoitiko maizterrak</td><td>• Azkoitia Lantzen</td><td>• Azkoitia Lantzen</td><td>2022, 2024, 2026</td><td>Udaletxea</td><td>• Alokairurako ematen den dirulaguntza kopurua</td><td>MARTXAN</td></tr>
</table>

# KIROLA

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| PLANAREN HELBURUA | KIROLA. Pertsona eta haien arteko harreman osasuntsuak sustatuko dituen kirol eskaintza bideratzea, emakumeengan, neska nerabeengan eta adineko pertsonengan arreta berezia jarriz. | | | | | |
| EKINTZA | **Kirol mahaia** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Kirol mahai bat osatu. Alde batetik, aniztasun funtzionala dutenentzat kirol aukerak zabaltzeko. Bertan herriko kirol klubek parte hartzea interesgarria izango zen, gaia osotasunean tratatu ahal izateko eta kirol egokituan eskola kirola baino aukera gehiago izateko. Gainera, mahai honek emakumeak kirolean txertatzeko, kirol elkarteen arteko koordinaziorako, udalarekin harremantzeko, etab. balioko du. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Aniztasun funtzionala dutenentzat herrian kirol aukerak izatea, inklusioan ez denean kirola egokitua egiteko errekurtsoak lortuz, herriko kirol taldeak ere inplikatuz | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Azpiegiturak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Aniztasun funtzionala duten pertsonak | • Azkoitiko Udala | • Herriko kirol klubak<br>• Marea Urdina<br>• Azkoitiko Udala | 2023 | ??? | • Inklusioan kirola egiten duten aniztasun funtzionala duten pertsona kopurua<br>• Kirol egokitu ekintza kopurua<br>• Urteko laguntzak ematen direnean kirol jarduera inklusiboak edo egokituak aurrera eramatera konprometitzen diren klubek lehentasuna izatea | BERRIA |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| PLANAREN HELBURUA | KIROLA. Pertsona eta haien arteko harreman osasuntsuak sustatuko dituen kirol eskaintza bideratzea, emakumeengan, neska nerabeengan eta adineko pertsonengan arreta berezia jarriz. | | | | | |
| EKINTZA | **Herriko kirol taldeak ezagutuz** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Herriko kirol talde guztiek beraien eskaintza ezagutarazteko eguna antolatzea. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Herriko kirol zaleei, herriko kirol taldek duten eskaintza ezagutarazi. | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Zerbitzuak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak, orokorrean | • Azkoitiko Udala | • Herriko kirol taldeak<br>• Azkoitiko Udala | 2023an hasita, udaberri hasieran | ?? | • Kirol taldeei egin zaizkien kontsultak<br>• Sortu diren taldekide berriekin | BERRIA |

| PLANAREN HELBURUA | KIROLA. Pertsona eta haien arteko harreman osasuntsuak sustatuko dituen kirol eskaintza bideratzea, emakumeengan, neska nerabeengan eta adineko pertsonengan arreta berezia jarriz. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZA | **Pump Trak gunea** | | | | | |
| DESKRIBAPENA | Herriko guneren batean txirringa zirkuitoa sortzea, haur, gazte zein helduen erabilera eta praktikarako. Egun badira hainbat udalerri honelako guneak sortzen ari direnak, erabiliak dira. Azkoitian ere familia ezberdinek eskatu izan dute, eta bertan ez dagoenez, Azpeitira ere joan izan dira. Gunea planifikatzeko, PEÑA ELORTZA txirrindularitza taldearekin kontatzea eskatzen da, gune egokia adosteko, eta gunearen diseinua ere adosteko. | | | | | |
| EKINTZAREN HELBURUA | Haur, gazte eta helduek kirol jarduera eta jolasa praktikatzeko beste azpiegitura eta gunea izatea; jolas eta kirol ohitura osasuntsuak izatea. | | | | | |
| ERAGIN EREMUA | Azpiegiturak | | | | | |
| HARTZAILE NAGUSIAK | ARDURADUNA(K) | PARTAIDEAK | SASOIA | LEKUA | ADIERAZLEA(K) | EGOERA |
| Azkoitiko herritarrak, orokorrean | • Azkoitiko Udala | • Azkoitiko Udala<br>• Peña Elortza | 2023 | aztertzeke | • Azpiegitura berria<br>• Erabilera eta erabiltzaile kopurua<br>• Erabilera momentuak | BERRIA |

**Pump Trak gunearena aztertzen ari da Udala.*